



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2025eko urtarrilaren 29a

8. ZK.

A U R K I B I D E A

G SAILA:

Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:

—11-24/CCO-00036. Tokiko Sektore Publikoaren 2022ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina (2. or.).

G saila:
TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA

11-24/CCO-00036. Tokiko Sektore Publikoaren 2022ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena, Kontuen Ganberak egina

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2024ko abenduaren 16an eginiko bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Kontuen Ganberak Tokiko Sektore Publikoaren 2022ko ekitaldiari buruzko fiskalizazio-txostena egin du.

Nafarroako Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearen 8.c) artikuluari dagokionez Nafarroako Parlamentuko


Erregelamenduaren 230. artikuluan ezarritakoarekin bat, honako hau ERABAKITZEN DA:

1. Txosten horren edukiaren jakinaren gainean dagoela adieraztea.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2024ko abenduaren 16an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias



Orrialdea

I. SARRERA	5
II. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK.....	5
III. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK	7
III.1 Konklusioak.....	7
III.2. Gomendioak.....	9
IV. TOKI-SEKTORE PUBLIKOAREN ANTOLAKETA-EGITURA ETA ARAUDIA.....	11
IV.1 Antolaketa-egitura.....	11
IV.2 Toki-sektore publikoaren arrazionalizazioa.....	13
IV.3 Nafarroako toki-entitateei aplikatzeko zaien araudia	13
V. 2022KO EKITALDIARI DAGOZKION FISKALIZAZIO-JARDUKETEN LABURPEN-OROTIDAZKIA.....	14
VI. TOKI-SEKTORE PUBLIKOAREN FINANTZA-EGOERA	16
VI.1 Diru-sarrerak	16
VI.2 Gastuak	18
VI.3 Suspertze eta Erresilientziarako Mekanismoaren funtsak	19
VI.4 Adierazleak	20
VI.5 Nafarroako udalen arteko konparaziozko analisia, biztanleria-tarteen araberakoa	22
VI.6 Aurrekontu egonkortasuneko eta finantza iraunkortasuneko helburuak	22
VII. KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOA	24
VIII. KONTU-EMATEA ETA AURREKONTUEN ONESPENA.....	26
VIII.1 Kontuak emateko betebeharrak betetzea.....	26
VIII.2. Aurrekontuaren onespena eta igorpena	27
IX. BARNE-KONTROLA ETA KONTU-HARTZE ORGANOEK JAULKITAKO ERAGOZPEN OHARRAK	27
IX.1 Eskatutako informazioa igortzeko betebeharrak betetzea	27
IX.2 Barne-kontrola	28
IX.3 Eragozpen-oharrak	29
IX.4 Diru-sarreraren arloko anomalia nagusiak	30
ERANSKINAK	31
I. ERANSKINA. TOKI-ENTITATEEI APLIKATZEKO ZAIEN ARAUDIA.....	31
2022AN NAFARROAKO TOKI-SEKTORE PUBLIKOAN APLIKATZEKOAK DIREN ARAU NAGUSIAK.....	31
2. ERANSKINA. NAFARROAKO TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN FINANTZA EGOERA 2022AN.....	35

I. SARRERA

Nafarroako toki-sektore publikoari buruzko txosten hau egin da, Kontuen Ganbera arautzen duen abenduaren 20ko 19/1984 Foru Legearekin bat, Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legea betetzeko, zeinaren 350.2 artikulua ezartzen baitu derrigorrezkoa dela urtero Nafarroako Parlamentuari eta Gobernuari bidaltzea Kontuen Ganberak Nafarroako toki-entitateen esparruan egin dituen fiskalizazio- eta kontrol-jarduketan berri ematen duen laburpen-oroitidazki bat.

Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak (TOFL, aurrerantzean) toki-entitateentzat ezartzen dituen epeak, ekitaldi bakoitzeko kontu orokorra onetsi eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari (NFKA, aurrerantzean) bidaltzekoak, bai eta informazio horren traetaeraren konplexutasunak ere, esplikatzeko 2022ko ekitaldiari buruzko txostena ezin lehenago egin izana.

Txostenari erantsi zaio¹ Lurralde Kohesiorako Departamentuak (aurrerantzean, "departamentua") egindako dokumentua, toki-sektore publikoaren 2022ko egoera finantzarioari buruzkoa.

Lana 2024ko maiatz eta abuztuan egin du auditoriako bi teknikariek eta auditore batek osatutako lantalde batek, Kontuen Ganberaren zerbitzu juridikoekin, informatikoekin eta administratiboekin lankidetzan.

Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legeak (TOFL, aurrerantzean) toki-entitateentzat ezartzen dituen epeak, ekitaldi bakoitzeko kontu orokorra onetsi eta Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari (NFKA, aurrerantzean) bidaltzekoak, bai eta informazio horren traetaeraren konplexutasunak ere, esplikatzeko 2022ko ekitaldiari buruzko txostena ezin lehenago egin izana.

Txosteneko diru kopuruak biribildu egin dira, zentimorik ez agertzearen. Aurkezten diren datuek beti adierazten dute balio zehatz bakoitza biribilduta, eta ez datu biribilduen batura. Ehunekoak ere balio zehatzen gainean daude kalkulatu, eta ez, ordea, balio biribilduen gainean.

II. HELBURUA, NORAINOKOA ETA MUGAK

Lan honen helburuak hauexek dira:

- Ganbera honek Nafarroako toki-entitateen esparruan 2022ko ekitaldiari buruz egin dituen fiskalizazio-jarduketak laburbiltzea.
- Ikuspegi bat ematea Parlamentuari, administrazio publikoei eta Nafarroako gizarteari Nafarroako toki-entitateen 2022ko egoera finantzarioari eta antolamenduari buruz.
- Toki-entitateek ekitaldi horretan egin duten kontratazioa aztertzea.
- Toki-erakundeen kontu-hartzaitzak diru-sarrerei dagokienez jakinarazitako barne kontrola, eragozpenak eta anomaliak aztertzea.
- Populazio-tarte desberdinei buruzko adierazle batzuk konparatzea Nafarroako udalen artean.

Lanaren norainokoa honako hau da:

- Toki-entitateen 2022ko ekitaldiko kontu orokorra, zeinaren osagai baitira toki-entitatearena berarena eta haren erakunde autonomoena (EE-AA., aurrerantzean), osoki toki-entitatearen jabetzakoa den kapitaleko merkataritza-sozietateena, eta kasuan kasuko eranskinak.
- Zuzendaritza nagusi horrek berak kudeaturiko Toki Entitateen Erregistroko datuak, bai eta Kontratazio Publikorako Batzordearen menpeko Kontratu Erregistrotik lorturiko informazioa ere.

¹ II. eranskina.

- Aipatu ekitaldiari buruz Ganbera honek jaulki dituen fiskalizazio-txostenak, eta Ganbera honek barne kontrolari buruzko informaziorako eginiko eskaerei bai eta eginiko eragozpen-oharrei ere toki-entitateetako kontu-hartze organoek eman dizkieten erantzunak.

- Toki-sektore publikoaren 2022ko egoera finantzarioari buruz departamentu honek eginiko txostena. Funtsean, toki-entitateen eta haien EE.AA.en aurrekontu-datu bateginetan oinarrituz prestatzen da. Hala ere, zenbait alderditan informazioa aurkezten da, barne hartzen duena, halaber, Iruñerriko Zerbitzuak SA sozietatea (SCPSA, aurrerantzean). Zorpetzearen azterketan bai sartu dela udalen eta mankomunitateen menpeko sozietate guztien bat-egitea. Fundazio publikoak eta partzuergoak, berriz, ez dira sartuak izan inongo informazio bateginetan.

Txosten horrek ez du informazio ekonomiko-finantzarioari ez eta aurrekontuorik ere jasotzen 2022ko ekitaldiko beren kontu orokorra edo aurrekontu-likidazioa departamentuari 2024ko martxoaren 19rako bidali ez zioten toki-entitateei buruz², zeinak baitira:

- 272 udalerrietatik 20: Abaurregaina, Abaurrepea, Aras, Azagra, Cabredo, Desoio, El Busto, Eratsun, Ezkurra, Fitero, Genevilla, Olmotz, Itzaltzu, Marañón, Martzilla, Olatzagutia, Saldias, San Martin Unx, Urzainki eta Zugarramurdi.

Udalerri horiek 12.345 biztanle dituzte guztira; alegia, Nafarroak 2022ko urtarrilaren 1ean zituen biztanleen ehuneko 1,86.

- 346 kontzejuetatik 54: Aizpun, Allotz, Amillao, Arandigoien, Argiñao, Artabia, Artazkotz, Asterain, Azantza, Bakedao, Biotzari, Bizkarreta, Zizur Txikia, Eraul, Erro, Esnotz, Eultz, Figarol, Galdio, Gazolatz, Goldaratz, Goñi, Gorza, Ibiriku Deierri, Igoa, Inbuluzketa, Irabi, Iruñela, Iturgoien, Labeaga, Lakar, Larraintzar, Larraia, Larrion, Lintzoain, Lizarragabengoa, Lorca, Muneta, Murelu Deierri, Muru-Asterain, Murugarren, Orondritz, Otsakar, Paternain, Getze Ibargoiti, Sartze, Subitza, Torres, Undio, Urdotz, Zarikiegi, Zubielki, Zurukuain.

Kontzeju horien biztanleria 7.436 pertsonakoa da. Nafarroako guztizko biztanleriaren ehuneko 1,12 egiten du, eta kontzejuetako biztanleriaren ehuneko 17,73.

- Hamaika, 84 mankomunitate eta batasunetatik: Calibus Administrazio Zerbitzuen Batasuna, Faltzes eta Miranda Arga udalerrietako Administrazio Zerbitzuen Batasuna, Aberin-Arellano-Morentingo Langileriaren Mankomunitatea, Beire-Pitillasko Langileriaren Mankomunitatea, Liburutegi Zerbitzuen Berragu Mankomunitatea, Nafarroako Erdialdeko Kirol eta Zerbitzu Soziokulturalen Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Orokorren Mankomunitatea, Erriberriko Eskualdeko Oinarritzko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitatea, Araxes Garaiko Zaborren Mankomunitatea, Euskara kudeatzeko Nafarroako Iparraldeko Mankomunitatea eta Orreaga Kirol Mankomunitatea.

Nahiz eta informazio hori ez dugun eskuan izan, jotzen dugu ezen gure lanean iritsi ditugun konklusioak ez ziratekeela nabarmenki aldatuko.

²Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusia Nafarroako toki-sektore publikoaren 2022ko egoera finantzarioari buruzko txostena egiten hasi zen eguna.

III. KONKLUSIOAK ETA GOMENDIOAK

III.1 KONKLUSIOAK

Toki-sektore publikoaren osaera 2022an

Toki-sektore publikoak 702 toki-entitate biltzen ditu: 272 udal, 346 kontzeju, 62 mankomunitate eta 22 udal-batasun. Zerbitzuak emateko, erakunde horiek mendeko 119 erakunde dituzte guztira, eta 16 partzuergo osatzen dituzte.

Aurreko txostenetan bezala, Nafarroaren gaur egungo toki-plantaren arrazionalizazio-ezaren arazoa azpimarratu nahi dugu. Udalerrri gehienak biztanle gutxikoak izateak eragina du baliabide-horniduran, bai eta eskumen propioen egikaritzera bideratutako administrazio-egitura egoki bat apailatzeko ahalmenean; halaber, zaildu egiten du legezko betebeharrak batzuen betetzea eta zerbitzu publikoak eraginkortasunez, efizientziaz eta kalitatez ematea.

Nafarroako Toki Administrazioaren erreformarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legeak tokiko maparen erreforma aurreikusi zuen, eskualdeak diren figura paratuz eta finantzaketa-sistema berri bat ezarriz. Tokiko maparen erreforma ez da garatu. Aldiz, tankeratu da, bai, finantzaketa-sistema berri bat, 2022an onetsitako hiru foru legeren bitartez arautua.

Toki-eremuaren fiskalizaziorako lanak, 2022. urteari buruzkoak.

Ganbera honek finantza- eta legezketasun-fiskalizazioa egin zuen Iruñeko Udalaren 2022ko jarduera ekonomiko-finantzarioari buruz. Finantza-auditoretzako iritzia aldekoa izan zen, baita legezketasun-betetzeari buruzkoa ere, bi salbuespenekin.

Lizarrako, Tuterako, Arangurengo, Eguesibarko, Zizur Nagusiko, Tafallako, Burlatako, Antso-aingo, Atarrabiako, Barañaingo eta Corellako udaletan legezketasun-betetzeari buruzko fiskalizazioa egin genuen langileriaren, kontratazio publikoaren eta dirulaguntzen alorrean. Horrez gain, Corellan, "Corella Music Fest" jaialdiaren fiskalizazio finantzarioa egin zen; eta Tafallan, fiskalizazioa "Ciudad deportiva de Tafalla" udal-sozietate publikoraino hedatu da, kontratazioaren alorrean.

Legezketasun-betetzeari buruzko fiskalizazioak aldekoak izan ziren Eguesibarren; eta gainerakoak, aldekoak baina salbuespenekin, salbu eta Corellakoa, zeina aurkakoa izan baitzen.

Corellari buruzko auditoria finantzarioko iritzia aldekoa izan zen, salbuespen batekin.

Toki-sektore publikoaren 2022ko egoera finantzarioa

Toki-entitateen eta menpeko EE.AA.en multzoak 2022an 1.041 milioiko diru-sarrerak lortu zituen. Horien ehuneko 48 transferentzien bidez, eta ehuneko 42, tributuen bitartezko diru-sarreretatik.

Gastuak 965 milioikoak izan ziren: horien ehuneko 80 funtzionamendu-gastuak izan ziren, batez ere ondasun arrunt eta zerbitzuetan egindakoak (ehuneko 36) eta langileriakoak (ehuneko 35).

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, guztizko diru-sarrera eta gastuak hurrenez hurren ehuneko hamasei eta ehuneko zortzi izan ziren.

Guztizko diru-sarrerak gora egin zuten, orokortasunez. Diru-sarrera arrunten gehikuntzarik handienak transferentzia arruntetan, tasa eta prezio publikoetan eta zuzeneko zergetan izan ziren: haien gorakadak 32, 18 eta 12 milioikoak izan ziren, hurrenez hurren. Kapitaleko diru-sarrerak nabarmen egin zuten gora. Azpimarratzekoa da kapitaleko transferentziek izandako 49 milioiko igoera. Diru-sarrera finantzarioek 16 milioi egin zuten gora; gehienbat, Iruñeko Udalak bi mailegu hitzartzearen ondorioz. Transferentzien gorakada esplikatzen da toki-entitateek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsaren gorakadatik (korronteak eta kapitalekoak), 18 eta 33 milioikoa, eta Ukrainako gerraren ondorioak samurtzeko aparteko funtsarengatik.

Guztizko gastuaren gorakadaren zergatia da funtzionamendu-gastuak 84 milioi igo direla. Aipagarriak dira ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastuen 59 milioiko gorakada, herrietako jaietarako

gastuek gora egin izanaren ondoriozkoa (kasu askotan bertan behera geratu ziren 2021ean, COVID-19aren pandemia zela-eta) eta energia-kostuen gorakada. 22 eta 21 milioikoak, hurrenez hurren.

Toki-entitateen 2022ko aurrezki garbia, funtzionamendu-gastuei eta finantza-zamari aurre egin ondoren, 107 milioikoa izan da. Egonkor mantendu da azken lau ekitaldietan.

Toki-sektore publikoaren zor bizia, kontuan harturik toki-entitateak, haien mendeko erakunde publikoak eta haiek partaidetza osoa duten sozietate publikoak, ehuneko hiru murriztu da, 2022aren amaieran 119 milioikoa izateraino. Zor biziaren batez besteko interes-tasa ehuneko 1,3koa da, eta batez besteko mugaeguneratze-epea, 8,96 urtekoa. Diru-sarrera arrunten ehuneko 13 egiten du; oso urrun, alegia, arauak ezartzen duen ehuneko 110etik.

Bestalde, gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina 374 milioikoa zen; alegia, aurreko urtearen amaieran baino ehuneko zazpi gehiagokoa.

Biztanleria tarte desberdinetako udalen adierazle finantzario nagusiak aztertuz gero, ikus daiteke ezen, Iruñean izan ezik, udalerrria zenbat eta handiagoa izan orduan eta txikiagoak direla diru-sarrera arruntak, funtzionamendu gastuak eta biztanle bakoitzeko aurrezki gordina.

Azken batean, toki-sektore publikoaren 2022ko egoera ekonomiko globala ona da. Bestalde, zor biziak beherantz jarraitu zuen, eta gastu orokorretarako diruzaintza-gerakinak gorantz, aurreko urteetako hoberanzko joerari eutsiz.

Kontratazio publikoa

Kontratu-erregistroaren arabera, toki-entitateek eta haien menpeko enteei 679 kontratu esleitu zituzten, guztizko zenbatekoa 145,98 milioikoa zeukatenak, kontuan hartu gabe munta txikiko araubidearen bitartezko kontratazioak. Kontratazio-bolumena oso kontzentratuta dago: zenbateko handieneko 37 kontratuak esleitua izan den zenbateko osoaren ehuneko 58 egiten dute.

Udalek kontratuen ehuneko 79 eta zenbateko osoaren ehuneko 73 esleitu zituzten. Bestalde, sozietate publikoek kontratuen ehuneko 11 eta zenbateko osoaren ehuneko 20 esleitu zituzten.

Gailentzen dira obra-kontratuak eta zerbitzu-kontratuak, zeinek guztizko zenbatekoaren ehuneko 63 eta 25 egiten baitute, hurrenez hurren.

Gehien erabiltzen den esleipen prozedura irekia da, kontratuen ehuneko 71 eta haien zenbatekoaren ehuneko 91 bideratzen baitu.

Kontu-ematea eta aurrekontuak

Oro har, toki-entitateek beren kontuak onetsi eta NFKari igortzen dizkiote, baina askotan ez dute egiten legezko epeetan, nahiko atzeratuta baizik. Zehazki, toki-entitateen ehuneko 61 eta 50 dira, hurrenez hurren, onesteko eta igortzeko betebeharrak horiek legezko gehieneko epearen barnean bete dituztenak. Nolanahi ere, txosten honen datan toki-entitateen ehuneko 87k jada igorri dituzte 2022ko beren kontuak.

Aurrekontuari dagokionez, toki-entitateen ehuneko 23k soilik onetsi dute aurrekontua kasuko ekitaldia hasi baino lehen, eta ehuneko hiruk bakarrik igorri diote legezko gehieneko epean Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiari.

Barne kontrola

Araudiak ezarritako barne kontroleko hiru modalitateetatik, kontu-hartzailletza soilik gauzatzen da modu orokorrean. Kontrol finantzarioaren eta eraginkortasun-kontrolaren funtzioez denaz bezainbatean, hurrenez hurren toki-entitateen ehuneko 59k eta 44k adierazten dute betetzen dituztela.

Horri dagokionez, nabarmendu beharra dago Nafarroan ez dela erregelamenduz garatu barne kontrolaren araubide juridikoa, Estatuan ez bezala, non apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretua onetsi baitzen, toki-sektore publikoko entitateen barne kontrolaren araubide juridikoa arautzen duena.

2022an, 30 toki-entitatetako kontu-hartzailletza organoek 188 eragozpen-ohar egin zituzten, zeinek guztira 7,15 milioiko zenbatekoa ukitzen baitute. Eragozpen gehien izandako arloa kontratazio publikoarena da, 141 eragozpen jarri baitira, gastuko 5,53 milioi ukitzen dituztenak.

Aurrekontu eta kontabilitate araudia

Nafarroako toki-kontabilitatea irailaren 21eko 272/1998 eta 273/1998 foru dekretuek arautzen dute, 1990eko uztailaren 17ko Ministro Aginduaren bidez onetsitako toki-administrazioari egokitutako Kontabilitate Publikoko Plan Orokorrean oinarrituta. Araubide hori ez da moldatua izan 2010eko Kontabilitate Publikoaren Plan Orokorrera; eta, era berean, toki-entitateen eta haien menpeko enteen kontabilitateko egoera-orriak bateratzeari buruzko araurik ere ez da egin.

III.2. GOMENDIOAK

Kontuan izanik azaldutako konklusioak eta aurreko txostenetan jasotako gomendio batzuk, indarrean dirautenak, honako gomendio hauek egiten ditugu:

Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari eta Parlamentuari

- *Behar diren legegintza- eta administrazio-neurriak onestea, erabat burutzearen Nafarroako toki-administrazioaren berregituraketa, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legean ezarritakoa, kudeaketa publiko efiziente eta eraginkorra lortzeko.*
- *Toki-entitateen barne kontrolaren araubide juridikoaren erregelamenduzko garapena urgentziaz onestea, kudeaketaren bizkortasuna uztarturik barne-kontrolak behar duen zorrotasunarekin.*
- *Urgentziaz heltzea toki-kontabilitatearen erreformari, hura doituz Kontabilitate Publikoaren Plan Orokor indardunari, zeina 2010ekoa baita. Halaber, toki-entitateen eta haien menpeko erakundeentzako kontabilitateko egoera-orriak bateratzeko arauak prestatzeari ekitea.*
- *Langileen plantilla organikoaren eredu bat egitea, halakoa zeinak argi eta zehatz jasoko baititu dokumentu horrek bete behar dituen baldintzak eta eduki behar duen informazioa. Barne hartuko du entitatearekin lotura duen langileria guztia, zein ere den bere araubide juridikoa.*
- *Abuztuaren 30eko 251/1993 Legegintzako Foru-dekretua aldatzea, zeinaren bitartez onesten baita Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen Estatutuaren testu bategina, toki-entitateetan diharduten langileenganaino hedatzearren urriaren 24ko 1/2018 Foru Lege-dekretuak xedatua, langileria alorreko neurriei buruzkoa, zeinaren bitartez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen kolektiboa, E maila/taldekoa, zuzenean kokatu baitzen D maila/taldean, halatan Nafarroako administrazio publiko guztietako langileen baldintzak parekatu.*
- *Munta txikiko kontratuak Nafarroako Kontratazioaren Atarian argitaratzeko eredu normalizatu ezartzea, informazioa modu egituratuan aurkeztu eta gorde dadin, datuen tratamendu automatizatu ahalbidetuko duen formatu batean.*

- *Foru legeria aldatzea, Nafarroako toki-entitateek modua izan dezaten, behar bezala justifikatuta dagoenean, eta behar adinako segurtasun juridikoarekin, banakako ebaluazioaren araubideko dirulaguntza-emate prozedura.*

- *Legez arautzea hirugarrenek egindako prestazioak ordaintzeko kasuak, baldintzak eta prozedura, noiz eginak eta, kasuko kontratua amaituta dagoelarik, prestazioaren jarraipena bermatzeko beste bat formalizatu ez denean, interesa publikoaren arabera beharrezkoa denean hura ez etetea.*

Txosten hau egiteko unean, hauexek dira aurreko gure txostenean egiten ziren gomendioetatik jaramon egin zaienak:

- *Toki-zerbitzuen kostuak kalkulatzeko sistema bat taxutzea eta hura ezar dadin sustatzea, bai eta kudeaketaren adierazleak ere, horrela beteko baita Toki Administrazioaren Arrazionalizazioari eta Iraunkortasunari buruzko Legean eta Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformarako Foru Legean xedatutakoa.*

- *Administrazio elektronikoko zerbitzuak toki-entitateetan ezar daitezten sustatzea, estrategia orokorra zehaztuz, eta zerbitzu horiek eraginkortasunez eta bete-betean inplementatzeko behar diren giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak eta teknologikoak toki-entitateen eskura jartzea, eskalako ekonomien lorpena ahalbidetuz.*

Toki-entitateei

- *Aurrekontua, aurrekontu-likidazioa eta kontu orokorra onestea ezarritako epeetan, eta haien guztien kontuak ematea 15 eguneko epean, onesten direnetik hasita.*

- *Udalaren barne kontrola egitea, aplikatzekoa den legerian ezarritako hedadurarekin, bere eginkizun hirukoitzaren arabera: kontu-hartzailatza, finantza-kontrola eta eraginkortasunaren kontrola.*

- *Toki-entitateek beren burua antolatzeko duten ahalmena erabiliz, tokiko zerbitzu publikoak eraginkortasunez, ekonomiaz eta efizientziaz kudeatzeko antolamendu-egitura arazoizkoena diseinatzea.*

- *Balorazio-ponentzietarako epea gaurkotzea.*

- *Kontratazio administratiboko prozeduretan denbora-plangintza egokia ezartzea, kontratuen gehieneko indarraldia gainditu ez dadin.*

- *Udal ondasun eta eskubideen inbentario balioetsia eta eguneratua ezartzeko prozesua osatzea, eta hura ibilgetuaren kontuekin lotzea.*

- *Lurzoruaren udal ondarearen erregistroa eta inbentarioa sortzea, bai eta hirigintzako hitzarmenen erregistroa ere.*

- *Hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epea argitaratzea, AEFILOn xedatutakoarekin bat.*

- *Partzuergoak kasuko administrazio publikoaren menpe paratzea eta toki-entitateen erregistroan jasotzea horiei buruzko informazioa.*

Txosten hau egiteko unean, aurreko gure txostenean egiten ziren gomendio honi jaramon egiten ari zaio:

- *Egiturazko lanpostu guztiak plantilla organikoan sartzea, eta gutxitzea, deialdi egokien birtartez, toki-entitateetako langilerian ikusten den behin-behinekotasun maila handia. Hain zuzen ere, arau hauek bete behar dira: 20/2021 Legea, enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzkoa, eta 19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira Nafarroako administrazio publikoetan egonkortze prozesuak gauzatzeko, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko 20/2021 Legearen ondorioz.*

2022an, aipatu araudia aplikaturik, toki-entitateek kasuko lan-eskaintza publikoak eta hautaprozedura-deialdiak egin dituzte.

Halaber, departamentuak hautapozkoak deitu zituen foru gaikuntzaren lorpenerako eta idazkaritza eta kontu-hartzailatza lanpostuak betetzeko.

2023an eta 2024an zehar, Kontuen Ganberak hamaika fiskalizazio-lan egin ditu, 2022ko ekitaldiari buruzkoak, eta horien helburuen artean jaso zen 10.000 biztanle baino gehiagoko udalerrietan enplegu publikoa egonkortzeko eginiko prozesu horiek fiskalizatzea.

IV. TOKI-SEKTORE PUBLIKOAREN ANTOLAKETA-EGITURA ETA ARAUDIA

IV.1 ANTOLAKETA-EGITURA

Toki-sektore publikoa Toki Administrazioari buruzko Foru Legean ezarritakoaren arabera antolatuta dago.

Udalak dira lurralde-antolamenduko oinarrizko toki-entitateak. Nafarroan 272 udalerrri daude, eta horien guztizko populazioa, 2022ko urtarrilaren 1ekoa, 664.117 biztanlekoa zen, honako taula honetan agertzen den moduan banatua:

Populazio-tartea	Udalerri-kopurua	Udalerrien portzentajea guztizkoaren gainean	Populazioa 2022-01-01ean	Populazioaren portzentajea guztizkoaren gainean
<101	45	17	2.583	0
101-500	107	39	25.446	4
501-1000	36	13	25.766	4
1001-2000	23	8	32.110	5
2001-3000	23	8	57.803	9
3001-5000	17	6	67.193	10
5001-10000	9	3	67.240	10
10001-20000	8	3	103.118	16
20001-30000	2	1	42.193	6
30001-50000	1	0	37.247	6
50.000 baino gehiago	1	0	203.418	31
Guztira	272	100	664.117	100

Nafarroako udalerrien ehuneko 69k (188 udalerrri) 1.000 biztanle baino gutxiago dituzte eta, multzo osoan, biztanleriaren ehuneko zortzi osatzen dute. Bestalde, Iruñak eta 10.000 biztanle baino gehiago dituzten gainerako 11 udalek biztanleriaren ehuneko 58 hartzen dute.

Udalerriez gain, honakoak dira toki-entitate:

- Kontzejuak: udal baten dermioaren barrenean kokaturiko toki-entitateak dira, hark baino populazio eta lurralde esparru txikiagoa dutenak.
- Ohiturazko elkarteak: Errege Bardeako Komunitatea, Aezkoa Ibarreko Komunitatea, Erronkari Ibarreko Mankomunitatea, Zaraitzu Ibarreko Unibertsitatea, Aralarko Elkarteak, eta TAFLk indarra hartzean herri ondasunen jabe edo administratzaile diren gainerako korporazio tradizionalak.
- Udalen mankomunitateak: zenbait udalen elkarteak, obrak elkarrekin egin eta haien eskumenekoak diren zerbitzu jakin batzuk emateko.
- TAFLn aurreikusitako moduan udalez gaindiko tokiko lurralde-entitate gisa eratzten diren eskualdeak.
- Nafarroako toki-entitateak eta Foru Komunitateko Administrazioak (NFKA) eratzten ahal dituzten plangintza orokorreko mankomunitateak, toki-eskumeneko zenbait zerbitzuren ematea koordinatzea xede dutenak.

- Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako otsailaren 4ko 4/2019 Foru Legeak indarra hartu zuen egunean existitzen ziren administrazio zerbitzuen elkarteak, horien ordezkoko eskualdeak eratzen diren bitartean.

Oraindik ez da eratu inongo eskualderik edo plangintza orokorrerako mankomunitaterik.

Toki-entitateen kopurua egonkor mantendu da azken urteotan:

Toki-entitatea	2018	2019	2020	2021	2022
Udalak ⁽¹⁾	272	272	272	272	272
Kontzejuak	346	346	346	346	346
Mankomunitateak	62	62	62	62	62
Elkarteak ⁽²⁾	22	22	22	22	22
Guztira	702	702	702	702	702

⁽¹⁾ 60 udal konposatuak dira.

⁽²⁾ Ohiturazko elkarteak eta udalerrietako elkarteak.

2018tik 2022ra bitarteko aldian honako hau da erakunde autonomoen, toki-entitate bat jabe bakarra duten merkataritza-sozietateen, toki-fundazio publikoen eta partzuergoen kopurua:

Entitatea	2018	2019	2020	2021	2022
Erakunde autonomoak	61	59	57	56	53
Merkataritza sozietateak	57	56	54	57	58
Fundazio publikoak	8	8	8	8	8
Partzuergoak	17	17	17	17	16
Guztira	143	140	136	138	135


Kopuruetan sartu diren erakunde autonomo bat eta zenbait sozietate eta fundazio ez dira ageri Toki Entitateen Erregistroan txosten honen datan, baina Ganbera honek identifikatu egin ditu bere fiskalizazio lanetan. Detektatu ez diren erregistratu gabeko beste erakunde batzuk ere egon daitezke.

2022an, Burlatako Udalaren mendeko bi erakunde autonomok baja eman zuten: Kulturako Udal Patronatuak eta Kiroletako Udal Patronatuak. "Villa de Funes" Udal Musika Eskola ere, herri horretako udalaren mendekoa zena, iraungi egin zen.

Sozietateei dagokienez, Lixura Baztan, S.L. sozietatearen alta erregistratu da (Baztango Udalaren mendekoa da).

Ez da fundazio publikoen kopuruaren aldaketarik ageri, eta Iruñerriko Abiadura Handiaren Partzuergoaren baja gertatu da, zeina, Estatuko Administrazioaren Kontu-hartzaitza Nagusiaren aburuz, Foru Komunitatearen mendeko unitate instituzional publikoa baita.

Aurreko datuen arabera, hona hemen Nafarroako toki-sektore publikoaren egitura 2022ko abenduaren 31n:



IV.2 TOKI-SEKTORE PUBLIKOAREN ARRAZIONALIZAZIOA

Ganbera honek behin eta berriz adierazi du Nafarroako egungo udal antolaketan arrazionalizazio falta dagoela. Arazo horrek, bada, bere horretan dirau, Nafarroako udalerrien biztanleria-dimentsio murriztarekin batera. Gai horrek eragina du baliabideen horniduran eta eskumenak berak baliatzeko administrazio-egitura egokirik ezean; legezko hainbat betebeharrak betetzea oztopatzen du, eta halaber eragina du zerbitzu publikoak behar bezala, eraginkortasunez, efizientziaz eta kalitatez emateko.

Horri dagokionez, Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako Foru Legeak aurreikusi zuen kasuko arauen onespeneraren bitartez tokiko mapa erreformatzea eta finantzaketa-sistema berri bat ezartzea.

Tokiko maparen erreformari dagokionez, foru lege horrek eskualdeak figura gisa ezartzen ditu, lurralde-izaerako eta udalez gaindiko esparruko toki-entitate gisa eta zerbitzu-ematearen nahiz jardueren kudeaketaren arduradun gisa. Eskualdeen eratzea udalek edo Nafarroako Gobernuak proposaturikoa litzateke. Horretarako, 18 hilabeteko epe bat ezarri zen, zeina 2020ko abuztuan amaitu baitzen.. Txosten hau jaulki den egunean, ez dago eraturako eskualderik.

Toki-finantzaketaren arloan, 2022an, martxoaren 22ko 6/2022 Foru Legea onetsi zen, eta horren bidez Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legea aldatu zen. 2022ko legeak finantzaketa sistema berri bat ezarri zuen, eta, horren bidez, Toki Ogasunen Funtzaren zuzkidura zentzuzko finko gisa ezarri zen, urtero eguneratzen dena Kontsumoko Prezioen Indizearen arabera. Transferentzia arrunten funts baten (TAF, aurrerantzean) eta kapital-transferentzien funts baten bidez egituratzen da, eta osagarri gisa urteko konpentsazio bat dauka, ekonomia-jardueren gaineko zergaren erreformaren ondoriozko diru-bilketa galerarako.

IV.3 NAFARROAKO TOKI-ENTITATEEI APLIKATZEKO ZAIEN ARAUDIA

Txosten honen I. eranskinean, Nafarroako toki-sektore publikoan 2022an aplikatu beharreko arau nagusiak zerrendatu dira, bai eta ekitaldi horretan onetsitako beste batzuk ere, geroago indarrean jarri arren.

Aurreko apartatua aipaturiko 6/2022 Foru Legeaz gain, honako arau hauek nabarmentzen ditugu:

- 7/2022 Foru Legea, martxoaren 22koa, ezartzen duena nola banatu transferentzia arrunten bidez toki-erakundeek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsa (FLTAP, aurrerantzean). Arau horrek parte-hartze funtsaren izaera ezaugarritzen du toki-entitateen baliabide bereki, partaidetzazko, dirulaguntzaz bestelako, xedatze askeko eta baldintzagabe bezala. Bost apartatutan banatzen da: finantzaketa orokorreko funtsa, zerbitzuak finantzatzeko funtsa, montepioen defizita

finantzatzeko funtsa, lurralde kohesiorako funtsa eta Nafarroako Udal eta Kontzejuen Federazioarentzako laguntza. 2022ko ekitaldirako urteko zenbatekoa 257,86 milioikoa izan zen, eta urtero gaurkotzen da, Kontsumo Prezioen Indizeari bi portzentaje-puntu gehituta.

- 8/2022 Foru Legea, martxoaren 22koa, Toki Inbertsioen Plana arautzen duena, zeinak zehazten baitu nola banatuko den kapital-transferentzien funtsa. Horrela, Toki Inbertsioen Plana definitzen da hiru apartatu hauetan sailkaturiko azpiegiturak eta zuzkidurak instalatu, hobetu eta berritzeko inbertsioen multzo gisa: inbertsio-programa, toki-programazioa eta determinazio librea. Bloke horiek hasieran izanen duten banaketa ehuneko 30, 40 eta 30ekoa izanen da, hurrenez hurren. Luzapenik ezean, Toki Inbertsioen Planaren denbora-programazioa hedatzen da 2022tik 2028ra arte, lege berri bat onetsi bitartean. 2022ko ekitaldirako hasierako zuzkidura 30 milioikoa da,³ eta kopuru hori KPlaren arabera handitzen da hurrengo ekitaldietan.

- 16/2022 Foru Legea, maiatzaren 30ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko gaikuntzadun funtzionarioentzat erreserbatutako lanpostuetan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzkoa. Lege horrek salbuespenezko moduan arautzen ditu Nafarroako toki-entitateetako idazkari eta kontu-hartzaile postuetarako egonkortze-prozesuak. Gaur den egunean, idazkari eta kontu-hartzaileak merezimendu-lehiaketa bidez egonkortzeko prozesuak etenda daude, konstituzio-kontrakotasuneko arazo bat aurkeztu izanaren ondorioz.

Estatu mailan nabarmentzekoa da, duen garrantziagatik, Diputatuen Kongresuaren Erabakia, 2021eko irailaren 13koa, zeinaren bidez aitortzen baita badela ezohiko larrialdiko egoera bat, 2022an arau fiskalak etenda mantentzea justifikatzen duena.

V. 2022KO EKITALDIARI DAGOZKION FISKALIZAZIO-JARDUKETEN LABURPEN-OROTIDAZKIA

Toki-sektore publikoaren alorrean, Kontuen Ganberak finantzen eta legezkotasunaren fiskalizazio txostenak egin ditu, 2022ko ekitaldiari buruzkoak, honako toki-entitate hauetarako:

Toki-entitatea	Txostenaren jaulkipen-data	2022/01/01eko biztanleria	Betebehar aitortuak	Eskubide aitortuak	Langileak 2022ko abenduaren 31n	Fiskalizazioaren emaitza*	
						Betetzeari buruzko finantza-iritzia	
Iruña	2023/12/15	203.418	250.626.509	270.093.565	1.733	Aldekoa	Salbuespenekin (2)
Lizarra	2023/12/21	13.977	15.420.028	15.561.377	182	-	Salbuespenekin (2)
Tutera	2024/01/16	37.247	47.443.194	52.912.428	353	-	Salbuespenekin (2)
Arangurengo ibarra	2024/01/25	12.156	14.992.498	13.276.575	93	-	Salbuespenekin (2)
Eguesibar	2024/01/26	21.795	14.992.471	17.168.397	167	-	Aldekoa
Zizur Nagusia	2024/01/29	15.497	16.671.301	15.697.565	112	-	Salbuespenekin (2)
Tafalla	2024/02/01	10.576	12.193.044	12.870.577	157	-	Salbuespenekin (4)
Burlata	2024/02/08	20.398	19.627.198	20.073.129	199	-	Salbuespenekin (1)
Antsoain	2024/02/13	10.588	10.554.029	9.920.444	104	-	Salbuespenekin (1)
Atarrabia	2024/02/15	10.022	10.815.719	9.188.381	113	-	Salbuespenekin (3)
Barañain	2024/02/28	19.537	19.991.994	21.293.896	184	-	Salbuespenekin (2)
Corella	2024/07/02	8.336	11.906.686	13.028.971	110	Salbuespenekin (1)	Aurkakoa
Fiskalizatutako toki-entitateak, guztira		383.547	445.234.671	471.085.305	3.507		

(*) Parentesi artean, hala badagokio, salbuespenen kopurua. (**) Iruñeko Udalean, betetze-auditoretzaren iritzia adierazi da. Gainerako kasuetan, langileen, kontratazio publikoaren eta dirulaguntzen arloetan antzemandako ez-betetzeen kopurua.

Iruñeko Udalean, 2022ko kontu orokorraren fiskalizazio finantzarioa egin zen, ekitaldi horretako jarduera ekonomiko-finantzarioaren legezkotasun-fiskalizazioarekin batera. Gainerako kasuetan, langileria, kontratazio publiko eta dirulaguntza alorretako legeria-betetzeari buruzko fiskalizazioak egin ziren. Horrez gain, Corellan, "Corella Music Fest" jaialdiaren fiskalizazio finantzarioa egin zen; eta Tafallan, fiskalizazioa "Ciudad deportiva de Tafalla" udal-sozietate publikoraino hedatu da, kontratazioaren alorrean.

³ Diruzaintzako gerakin atxikitik heldutako ekarpen gehigarriekin gehitu daiteke.

Fiskalizazioaren emaitzak txostenetan jaso ziren, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Nafarroako Kontuen Ganberaren webgunean argitaratuta daude.

Jarraian labur azaltzen dira 2022ko ekitaldiko finantza- eta legezketasun-fiskalizazioaren emaitza nagusiak:

- Iruñeko Udalean, finantza-auditoretzako iritzia aldekoa izan zen, eta legeria-betetzeari buruzko auditoretza aldekoa baina bi salbuespenduna izan zen: bata, kontratu batean oinarri izan gabe emandako zerbitzuengatik gastuei buruzkoa, kontratuen gehieneko indarraldia gaudituta zegoenez; eta bestea, kontratu-alorreko urraketengatik, zenbait lan munta txikiko kontratu bezala izapidetu zirelako, aurretiaz esleituriko kontratu baten unitate funtzional bera osaturik pleguetan aipaturiko gehieneko azpikontratazio-zenbatekoak gauditzeaz landa.

- Corellako Udalak iritzi finantzario salbuespenduna izan zuen, ezen ezin izan genuen behar bezalako eta behar adinako ebidentziarik lortu auditoretzaren xedetzat harturiko jardueraren diru-sarrerera eta gastuei, kobrantza eta pagamenduei buruz. Betetzeari buruzko auditoretza aurkakoa izan zen: 12 salbuespen jasota utzi ziren, prozedura-, aurrekontu-, kontratazioi-, langileria- eta dirulaguntza-alorretako urraketek buruzkoak.

- Bederatzi udalek eta mendeko sozietate publiko batek munta txikiko kontratu gisa izapidetu zituzten zenbait prestazio, zeinak, beren balio estimatua zela-eta, balio estematu horren arabera prozedurari jarraikiz lizitzatu behar izanen baitziratekeen.

- Zazpi udalek eta mendeko sozietate publiko batek aitortu zituzten kontratu-oinarri egokirik gabe emandako zerbitzuengatik gastuak, kontratuak mugaeguneratuta egotearen ondorioz.

- Udal batek langileen hitzarmen kolektiboa NAO-n argitaratu zuen.

Finantza- eta legezketasun-gaieetan, hauek izan ziren txostenetan jasotako gomendio nagusiak:

- *Langileen arloko barne-kontrola indartzea, nominetan antzemandako akatsak gerta ez daitezzen.*

- *Prozedura egokiaren bidez lizitzatu eta esleitzea munta txikiko kontratuentzako araubide berezia erabiltzea ahalbidetzen duten mugak baino gehiagoko balio zenbatetsia duten kontratu guztiak.*

- *Kontratuen lizitazio-prozeduren denbora-plangintza egokia ezartzea, haien gehieneko indarraldia ez gauditzeko.*

- *Munta txikiko araubide bereziko kontratazioaren hiruhileroko zerrenda argitaratzea, araudiak ezartzen duenaren arabera.*

- *Diruz lagundutako jarduketaren oroitidazki-eredu bat egitea, bai eta diruz lagundutako jarduketaren gastu eta diru-sarreraren justifikazioaren aurkezpenarena ere, errazte aldera dokumentazio hori onuradunei aurkeztea eta, ondoren, berrikustea, kasu guztietan aurkezteko eskatuz.*

- *Emandako dirulaguntzak Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean argitaratzea.*

- *Dirulaguntzen plan estrategiko bat onestea, eta bertan zehaztea helburuak, efektuak, aurreikusitako kostuak eta finantzaketa-iturriak.*

- *Erregelamenduz garatzea udal-taldearen finantzaketa justifikatzeari buruzko araubidea, erregulaturik bai haien diru-zuzkiduren erabilera, bai formazko betekizunak eta prozedura, halako moldez non diru-zuzkidurez eginiko erabilera kontu-hartzaitzaren fiskalizaziopean jarriko baita eta gutxienik urtean behin osoko bilkurari jakinaraziko baitzaio.*

- *Onuradunei exijitzea dirulaguntza eman aurretik justifikatu dezatela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean dituztela.*

VI. TOKI-SEKTORE PUBLIKOAREN FINANTZA-EGOERA

2022ko toki-sektore publikoari buruz Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren Zuzendaritza Nagusiak egindako txostenak toki-entitateen eta haien erakunde autonomoen informazio bateratua dakar. Txosten hori 2. eranskinean dago. Txosten horrek atal bat dauka, zeinean Iruñerriko Mankomunitatearen mendeko SCPSA sozietate publikoarekin bateraturiko datuak jasotzen baitira⁴. Aurreko ekitaldiekiko konparaziorako, gure txostenean jasotzen ziren 2021eko datuei heldu diegu.

VI.1 DIRU-SARRERAK

Jarraian, toki-entitateen, haien erakunde autonomoen eta SCPSA sozietatearen 2022ko diru-sarrera aurrekontuaren exekuzioaren laburpen bat ematen da.

							(milioiak)
Kapitulua	Behin betiko aurreik.	AEG 2022	Diru-sarrera guztien gaitien gainean (%)	Exekuzioaren %	Aldea Aitortutako eskubide garbiak, 2022/21	96/92 Zuzenekoak 2022/21	AEG, 2022 (*)
1. Zuzeneko zergak	192,45	205,04	20	107	11,82	6	205,04
2. Zeharkako zergak	26,21	36,72	4	140	3,24	10	36,72
3. Tasak, prezio publikoak eta beste diru-sarrera batzuk	170,86	196,39	19	115	18,34	10	273,45
4. Transferentzia arruntak	397,69	406,16	39	102	31,74	8	414,70
5. Ondare-sarrerak eta herri-aprobetxamenduak	57,76	58,90	6	102	8,49	17	58,98
Diru-sarrera arruntak	844,96	903,20	87	107	73,63	9	988,89
6. Inbertsio errealeen besterentzea	17,66	21,71	2	123	8,42	63	21,78
7. Kapital-transferentziak	114,61	95,68	9	83	48,67	104	101,19
Kapitaleko diru-sarrerak	132,26	117,39	11	89	57,09	95	122,97
8. Finantza-aktiboak	163,87	1,27	0	1	-0,21	14	1,27
9. Finantza-pasiboak	42,23	19,41	2	46	16,34	530	19,41
Diru-sarrera finantzarioak	206,10	20,68	2	10	16,12	354	20,68
Guztira	1.183,32	1.041,27	100	88	146,85	16	1.132,55

(*) SCPSArekin bateratutako eskubide aitortuak.

Diru-sarreraren 2022rako behin betiko aurreikuspenek 1.183,32 milioi euro egin zuten, eta ehuneko 88ko betetze-maila dute. Diru-sarrera arruntaren betetze-maila ehuneko 107koa da, eta kapitaleko diru-sarrerena, ehuneko 89koa. Bestalde, diru-sarrera finantzarioen betetze-maila ehuneko 10ekoa izan zen.

Aitortutako eskubide garbiek (AEG) 1.041,27 milioi egin zuten. Horietatik ehuneko 87 diru-sarrera arruntak izan ziren (gehienbat, transferentziak eta tributuoak), eta kapitaleko diru-sarrerak guztizkoaren ehuneko 11 izan ziren.

2022ko guztizko diru-sarrerak ehuneko 16 handitu ziren aurreko ekitaldikoaren aldean. Diru-sarrera arruntak ehuneko 9ko igoera izan dute 2021arekin alderatuta, transferentzien, tasa eta prezio publikoen, zergen eta ondare diru-sarreraren igoeraren ondorioz. Transferentzia arruntak 32 milioi igo ziren; nagusiki, 2022ko ekitaldirako kapital-transferentzien funtsaren zuzkidura igotzeagatik eta Ukrainako gerraren ondorioak samurtzeko funts bereziarengatik⁵.

⁴ Bateratzearen efektua da 91,28 eta 98,11 milioi euro diru-sarreretan eta gastuetan, hurrenez hurren.

⁵ Maiatzaren 12ko 13/2022 Foru Legearen bitartez onetsita.

Kapital diru-sarrerak ehuneko 95 igo ziren 2021ekoetik. Gorakada gotor hori, hein handi batean, Toki Inbertsioen Planarengatik gertatua da, aurreko urtearekiko 33,38 milioi igo delako.

Diru-sarrera finantzarioek 2021etik gora egitearen arrazoia neurri handi batean izan zen Iruñeko Udalak bi mailegu hitzartu zituela, guztira 15 milioi egiten dutenak.

Guztizko diru-sarreretatik, ehuneko 83 udalei dagokie, ehuneko 15 mankomunitate eta batasunei, eta gainerako ehuneko bira, kontzejuei. Banaketa hori aurreko ekitaldikoaren antzekoa da.

Toki-sektore publikoak, barne harturik toki-entitateak eta haien erakunde autonomoak, transferentziengatik jasotako diru-sarrerak nagusiki heldu dira Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioetik, zeinaren 2022ko aurrekontuek 453,49 milioiko gastua jasotzen baitute, transferentzia arruntetan eta kapital-transferentzietan egina.

(milioiak)

Naf. Aurr. Orok. kapital-transferentziak	2020	2021	2022	Ald. abs. 2022/20 aldea (%)	Ald. abs. 2022/21 aldea (%)		
Toki-entitateei							
Arruntak - COVID ez	321,10	340,09	367,89	46,79	15	27,80	8
Kapitalekoak - COVID ez	49,28	30,26	84,62	35,34	72	54,36	180
Transferentziak, guztira (COVID ez)	370,38	370,35	452,50	82,12	22	82,15	22
Arruntak - COVID	13,13	0,75	0,98	-12,15	-93	0,23	31
Kapitalekoak - COVID	13,50	0,00	0,00	-13,50	-100	0,00	-
Transferentziak, guztira (COVID)	26,63	0,75	0,98	-25,65	-96	0,23	31
Guztira	397,01	371,10	453,49	56,48	14	82,39	22

Toki-entitateei Nafarroako aurrekontu orokorren kargura eginiko transferentzien guztizkoa ehuneko 22 igo da 2021ekin alderatuta, 'ez Covid' transferentzien gorakadaren ondorioz. Haien izaeraren arabera, honako hau azpimarratzen dugu:

- 'Ez Covid' transferentzia arruntak ehuneko zortzi igo dira, batez ere toki-ogasunek Nafarroako tributuetan duten parte-hartzearen funtsa 18 milioi handitu delako.

Kapitulu horren barrenean 12,3 milioi daude, zeinak baitira milioi bat baino gutxiagoko negozio-zifra duten subjektu pasiboak jarduera ekonomikoen gaineko zergatik salbuestearen ondoriozko dirubilketa-galerarengatik toki-entitateetara bideraturiko konpentsazioarenak.

- Kapital-transferentziak ehuneko 180 igo dira aurreko ekitaldiaren aldean, eta ehuneko 72, 2020aren aldean. Gehienbat, 33 milioi igo delako toki-entitateek Nafarroako tributuetan parte hartzeko funtsa, kapital-transferentzien atalean, Toki Inbertsioen Planaren bitartez.

Hurrengo taulan, toki-entitateei eta haien erakunde autonomoei eginiko transferentzia arruntengatik eta COVID-19ari lotu gabeko kapital-transferentziengatik Nafarroako Aurrekontu Nagusien kargura aitortutako betebeharrak (ABG) sailkapen funtzionala erakusten da:

(milioiak)

COVID-ari lotu gabeko transferentzien sailkapen funtzionala	2021	2022	Ald. abs. 2022/21 aldea (%)	2022/21 aldea (%)
94. Transferentziak beste adm. batzuei	270,55	292,18	21,63	8
26. Etxebizitza eskuratzea eta sustatzea	4,67	33,62	28,95	620
23. Gizarte zerbitzuak eta sustapena	27,21	32,02	4,81	18
32. Hezkuntza	24,30	29,86	5,56	23
44. Garraiorako dirulaguntzak	15,89	15,14	-0,75	-5
45. Azpiegiturak	7,85	14,10	6,25	80
43 Merkataritza, turismoa eta ETEak	0,61	11,25	10,63	1.741
33. Kultura	6,62	7,67	1,05	16
Gainerakoak	12,66	16,68	4,03	32
Guztira	370,35	452,50	82,15	22

Transferentzien ehuneko 65 (292,18 milioi) "Transferentziak beste administrazio batzuei" politikari dagozkie. Horrek barne hartzen ditu toki-ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko duten funtsaren transferentzia arruntak.

VI.2 GASTUAK

Jarraian, toki-entitateen, haien erakunde autonomoen eta SCPSA sozietatearen 2022ko gastu-aurrekontuaren exekuzioaren laburpen bat ematen da:

(milioiak)

Kapitulua	Behin betiko kredituak	Aitortutako betebehargarbiak (ABG), 2022	Gastu guztien gainean (%)	Exekuzioaren %	AEG 2022/21 ald.	Aldearen %, 2022/21	ABG, 2022 (*)
1 Langileria-gastuak	343,38	333,14	34,5	97	16,09	5	361,39
2 Gastuak ondasun arruntetan eta zerbitzuetan	367,49	349,72	36,3	95	58,96	20	394,11
3 Gastu finantzarioak	1,32	1,05	0,1	79	0,01	1	1,05
4 Transferentzia arruntak	98,46	91,77	9,5	93	9,11	11	92,84
Eragiketa arruntak	810,64	775,68	80,4	96	84,16	12	849,38
5 Kontingentzia Funtsa	0,37	0,00	0,0	0	0,00	-	0,00
Kontingentzia funtsa	0,37	0,00	0,0	0	0,00	-	0,00
6 Inbertsio errealak	320,39	149,85	15,5	47	-6,56	-4	174,25
7 Kapital-transferentziak	24,92	17,70	1,8	71	0,20	1	17,70
Kapital-eragiketak	345,31	167,55	17,4	49	-6,36	-4	191,96
8 Finantza-aktiboak	0,60	1,29	0,1	214	0,48	60	1,29
9 Finantza-pasiboak	20,13	20,13	2,1	100	-5,03	-20	20,13
Finantza-eragiketak	20,73	21,43	2,2	103	-4,55	-18	21,43
Guztira	1.177,05	964,66	100	82	73,26	8	1.062,76

(*) SCPSAekin bateratutako betebehargarbiak aitortuak.

Behin betiko kredituak 1.177,05 milioi eurokoak izan ziren, eta ehuneko 82ko betetze-maila izan zuten. Diru-sarrera arruntan betetze-maila ehuneko 96koa izan zen, eta kapital-eragiketena, ehuneko 49koa.

2022ko guztizko gastua 964,66 milioi eurokoa izan zen, eta horietatik ehuneko 35 eta ehuneko 36, hurrenez hurren, langile-gastuei eta ondasun arrunt eta zerbitzuetan eginiko gastuari dagozkie. Bestalde, inbertsio errealen kapitulua guztizkoaren ehuneko 16 da.

Guztizko gastu hori ehuneko 8 igo da aurreko ekitaldiarekin alderatuta; hau da, 73 milioi. Hazkunde hori, batez ere, ondasun arrunt eta zerbitzuetan eta langilerian izandako gastu-igoerengatik gertatu da, 58,96 eta 16,09 milioi igo baitira, hurrenez hurren.

Ondasun arrunt eta zerbitzuetako gastua ehuneko 20 igo da 2021ekoarekin alderatuta; batez ere, honakoarengatik:

- Kulturako gastuak 22,5 milioiko gorakada izateagatik, pandemiaren ondoren berreskuraturiko herrietako jaiak ospatzearen ondoriozkoak.

- Energia-kostuek 21 milioiko gorakada izateagatik.

Guztizko gastuetatik, ehuneko 84 udalei dagokie, ehuneko 15 mankomunitate eta batasunei, eta gainerako ehuneko 2a, kontzejuei. Banaketa hori aurreko ekitaldikoaren antzekoa da.

Ondorengo taulan gastu bateratuaren sailkapen funtzionala⁶ eta horrek aurreko ekitaldiarekiko izandako bilakaera ageri dira.

(milioiak)

Gastu-politika	Sozietateekin bateratutako gabe	Bateratzearen eragina	Sozietateekin bateratuta			
			Gastuak 2022	% gastu guztien gainean	Ald. abs. vs. 2021	2022 vs 2021 ald. (%)
Ongizate komunitarioa	130,49	80,64	211,13	20	21,94	12
Zerbitzu orokorrak	103,64	11,84	115,48	11	3,37	3
Hezkuntza	91,03	-	91,03	9	7,33	9
Etxebizitza eta hirigintza	83,90	-	83,90	8	2,62	3
Gizarte-zerbitzuak eta gizarte-sustapena	82,83	-	82,83	8	2,84	4
Kultura	78,67	-	78,67	7	25,17	47
Herritarren segurtasuna eta mugikortasuna	71,36	-	71,36	7	7,31	11
Kirola	68,39	-	68,39	6	5,10	8
Pentsioak	54,78	-	54,78	5	1,35	3
Garraio publikoa	33,02	-0,57	32,45	3	3,57	12
Ingurumena	26,42	0,83	27,26	3	2,60	11
Zor publikoa	21,15	-	21,15	2	-17,99	-46
Beste batzuk	118,97	5,36	124,33	12	8,69	8
Guztira	964,66	98,11	1.062,76	100	73,90	7

“Ongizate komunitarioaren” eta “Zerbitzu orokorren” arloko politikek biltzen dituzte gastu-boluen handienak; guztizkoaren ehuneko 20 eta 11, hurrenez hurren. Ondoren, “Hezkuntza”, “Etxebizitza eta hirigintza” eta “Gizarte-zerbitzuak eta gizarte-sustapena” politikak daude; horietako bakoitza guztizko gastuaren ehuneko bederatzia, zortzi eta zortzi da, hurrenez hurren.

“Ongizate komunitarioaren” politikako finkatutako gastuaren ehuneko 37 hondakinen bilketa, kudeaketa eta tratamenduari dagokio, eta ehuneko 28 edateko uraren etxez etxeko hornidurari. Politika horretan sartzen dira, halaber, argiteria publikoko, bide garbiketako eta estolderiako gastuak, besteak beste.

Urte arteko konparaketan, esanguratsua da “Kultura” alorreko gorakada, lehen aipatua, bai eta “Ongizate komunitario”koa, zeina baitagokio edateko uraren etxez etxeko hornidurak eta argiteriak izandako gorakadei.

VI.3 SUSPERTZE ETA ERRESILIENTZIARAKO MEKANISMOAREN FUNTSAK

Daukaten garrantzi kuantitatiboa dela-eta, jarraian aurkezten dugu toki-entitateek 2022an jasotako funtsen xehetasuna; hain zuzen, funts horiek dagozkien Next Generation funtsen kargura finantzatutako Espainiako Erresumaren Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planen sartutako proiektuei.

- Kontuen Ganberak auditaturiko toki-entitateei buruzko informazioa:⁷ hurrenez hurren 16'46 eta 11'36 milioi egiten duten eskubideak eta gastuak aitortu dira.

⁶ 2022an SCPSA sozietatearekin bateraturiko informazioa aurkezten da. Horren zergatia da ongizate komunitarioaren programan hondakin-kudeaketak, ur edangarriaren horniketak eta hondakin-uren saneamenduak daukaten garrantzia. 2021an halaber barne hartzen dira Jurrmendiko Mankomunitatearen menpeko bi sozietate; dena den, informazio hori ez dago 2022an eskuragarri. Gastu-bateratzearen efektua 97,47 izan zen 2021ean, hiru sozietateak kontuan harturik. Konparazio baterako, 2022an 98,11 milioi eurokoa izan zen, SCPSAren.

⁷ Haien jatorria zuzeneko (kasuko ministerioa) nahiz zeharkakoa (Nafarroako Gobernu) izan daiteke.

VI.4 ADIERAZLEAK

Beheko taulan, toki-sektore publikoan gastatutako 100 euroko kopuru bakoitzaren banaketa erakusten dugu, bai eta finantzaketa ere, sozietateak barne hartu gabe:

Gastuaren izaera	2021	2022	Finantzaketa-iturria	2021	2022
Langileria	36	35	Tributu bidezko diru-sarrerak	45	42
Ondasun arruntak eta zerbitzuak	33	36	Transferentzien bitartezko diru-sarrerak	47	48
Transferentziengatikoko gastuak	11	11	Ondare bidezko diru-sarrerak eta beste	6	6
Inbertsio errealak	18	16	Inbertsioen besterentzea	1	2
Finantza-zama	3	2	Zorpetzea	0	2
	100	100		100	100

2022an, toki-entitateen bi diru-sarrera iturri nagusiak transferentziak eta tributu bidezko diru-sarrerak dira, zeinek haien baliabideen ehuneko 48 eta 42 ekartzen baitituzte, hurrenez hurren. Urte arteko konparaketan, tributu bidezko diru-sareren ekarpena pixka bat murrizten da, eta zorpetzearen pisu erlatiboa gehitzen.

Gastuei dagokienez, langileenak eta ondasun arruntetakoak eta zerbitzuetakoak dira nagusi, zeinek ehuneko 35 eta ehuneko 36, hurrenez hurren, egiten baitute; atzetik inbertsio errealean datoz, ehuneko 16rekin. Urtetik urterako aldaketan, ondasun arrunt eta zerbitzuetan egindako gastuaren igoera eta inbertsio errealean jaitsiera nabarmendu behar dira.

Jarraian, toki-sektore publikoaren finantza-egoeraren adierazle batzuek 2018-2022 aldian zehar izan duten bilakaera erakusten da.

(milioiak)

Adierazleak	Toki-entitateak, ezein sozietate bateratu gabe					2022/18 aldea (%)	2022/21 aldea (abs.)	2022/2 aldea (%)	2022(1)
	2018	2019	2020	2021	2022				
Diru-sarrerak, guztira	839,48	891,40	855,31	894,42	1.041,27	24	146,85	16	1.132,55
Gastuak, guztira	787,98	885,37	799,18	891,40	964,66	22	73,26	8	1.062,76
Tributu bidezko diru-sarrerak	385,04	402,08	374,47	404,74	438,14	14	33,41	8	515,21
Transferentzien bitartezko diru-sarrerak	390,26	424,10	429,54	421,43	501,84	29	80,41	19	515,89
Funtzionamendu-gastuak	626,02	653,91	643,17	690,47	774,63	24	84,16	12	848,33
Kapital-gastua	125,09	199,42	123,59	173,91	167,55	34	-6,36	-4	191,96
Aurrekontu-emaizta ez-finantzarioa	81,22	31,16	78,00	24,43	77,36	-5	52,92	217	70,53
Aurrezki gordina	126,60	137,68	138,84	139,09	128,57	2	-10,52	-8	140,56
Finantza-zama	35,00	30,54	30,33	26,21	21,18	-39	-5,03	-19	21,18
Aurrezki garbia	91,60	107,14	108,51	112,89	107,39	17	-5,50	-5	119,38
Finantza-zamaren indizea	4,65	3,86	3,88	3,16	2,35	-50	-0,81	-26	2,14
Aurrezki gordina / diru-sarrera arruntak (%)	16,82	17,39	17,75	16,77	14,23	-15	-2,53	-15	14,21
Zorpetze-ahalmena (%)	12,17	13,53	13,88	13,61	11,89	-2	-1,72	-13	12,07
Zor bizia (2)	207,63	179,61	137,74	121,68	118,56	-43	-3,12	-3	118,56
Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina	250,65	275,17	301,52	335,45	373,99	49	38,54	11	Ez da aplikatzen

(1) SCPSArekin bateratutako adierazleak.

(2) Toki-sektore publiko osoarena, barnean harturik toki-entitateak, haien erakunde autonomoak eta haien % 100eko partaidetza duten sozietate guztiak.

Ez dago zehazterik gastu orokorretarako diruzaintza-gerakin bateratua; izan ere, duen izaera juridikoa dela-eta, SCPSAk ez dauka halako magnituderik. Alabaina, haren maniobra-funtsa ⁸ 38,79 milioikoa da.

Aurreko taulako datuak aztertuta, honako zertzelada hauek azpimarratu behar ditugu:

- 2022an, diru-sarrerek ehuneko 16 egin dute gora aurreko ekitaldiarekin alderatuta, eta 2018koak baino ehuneko 24 gehiagokoak izatera iritsi dira.
- 2022ko guztizko gastuak ehuneko zortzi igo dira aurreko ekitaldiarekin alderatuta, eta 2018koak baino ehuneko 22 gehiagokoak izatera iritsi dira.
- Funtzionamendu-gastuak ehuneko 12 hazi dira eta 774,63 milioira iritsi; hots, azken bost urteetako gehieneko zenbatekoa.
- Kapital-gastuak ehuneko lau murriztu dira, halatan 167,55 milioira iritsirik.
- Finantza-kargak beheranzko joerari eutsi dio, 21,18 milioira iritsi arte; hau da, 2021ko eta 2018ko kopuruak baino ehuneko 19 eta ehuneko 39 gutxiago, hurrenez hurren.
- Azaldutakoaren ondorioz, aurrezki garbia, funtzionamendu-gastuei eta finantza-zamari aurre egin ondoren, 107,39 milioikoa izan da, eta aski egonkor mantendu da azken lau ekitaldietan.
- Nafarroako toki-entitateen zor bizia, 2022aren amaieran, haien erakunde publiko guztiak eta haien partaidetza osoa duten sozietate publikoak kontuan hartuta, 118,56 milioikoa zen; hau da, 2021ekoa eta 2018koa baino ehuneko hiru eta ehuneko 43 txikiagoa, hurrenez hurren. Joera horrek zerikusi handia du Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-iraunkortasunari buruzko Lege Organikoaren eskakizunekin. 2022an 20,1 milioiko zorra amortizatu zen, eta 19,4 milioiko zor berria hitzartu. Zor biziaren batez besteko interes tasa ehuneko 1,3koa da, eta batez besteko mugaeguneratze-epea, 8,96 urtekoa.
- Gastu orokorretarako diruzaintza-gerakina, alegia, sortutako baliabideen soberakina, etorkizuneko ekitaldietan gastu-aldaketak finantzatzeko erabiltzen ahal dena, azken urteotako joerari eutsiz, igo egin da eta 374 milioira iritsi da 2022aren amaieran. Horrenbestez, ehuneko 11 eta ehuneko 49 hazi da, hurrenez hurren, 2021ekoaren eta 2018koaren aldean.

Laburbilduz, Nafarroako toki-entitateen egoera finantzarioa sasoitsua da 2022ko ekitaldian, azken ekitaldien ildo berari eutsirik. Diru-sarrerek gastuek baino proportzio handiagoan egin dute gora, eta horrek aurrekontu-emaitzaren gehikuntza ekarri du, 2021eko ekitaldiaren aldean. Nahiz eta ekitaldiko diru-sarrera arruntak nabarmen gehitu diren, ekitaldiko aurrezki gordina murriztu egin da 2021eko ekitaldiaren aldean, funtzionamendu-gastuek gorakada handiagoa izan dute-eta.

⁸ Entitatearen balantzetik lortzen da, aktibo arruntaren eta pasibo arruntaren arteko diferentziatik.

VI.5 NAFARROAKO UDALEN ARTEKO KONPARAZIOZKO ANALISIA, BIZTANLERIA-TARTEEN ARABERAKOA

Hurrengo taulan, biztanleria-tarte desberdinetan dauden Nafarroako udalen⁹ adierazle-multzo bat konparatzen da

(eurotan)

Populazioa	1.000 bi- tarte	1.000tik 5.000ra	5.000tik 10.000ra	10.000tik 40.000ra	40.000 baino gehiago
Udalen kopurua	172	59	9	11	1
Biztanleria osoa	51.667	146.889	67.240	182.558	203.418
Diru-sarrerak guztira (biztanleko)	1.745	1.448	1.232	1.117	1.329
Diru-sarrera arruntak (biztanleko)	1.441	1.257	1.132	992	1.129
Biztanle bakoitzeko kapital diru-sarrerak	305	191	99	125	200
Funtzionamendu-gastuak (biztanleko)	1.100	1.049	978	887	1.023
Kapital-gastuak (biztanleko)	448	310	198	125	171
Finantza-zama (biztanleko)	37	34	27	18	40
Aurrezki gordina (biztanleko)	341	208	154	105	107
Aurrezki garbia (biztanleko)	304	174	127	87	67
Finantza-zamaren indizea (3. eta 9. kapituluak zati diru-sarrera arruntak)	3	3	2	2	4
Aurrez. gord. % diru-sarr. arr. gabe (d.s. arr. - funtz. gast. / d.s. arr.)	24	17	14	11	9
Transferentzia arruntengatiko diru-sarrerak (biztanleko)	596	528	475	468	549
Transferentzia arruntez finantzatutako gastu arrunten ehunekoa	54	50	48	53	54

Iruña izan ezik, udalerrria zenbat eta handiagoa izan orduan eta txikiagoak dira guztizko diru-sarrerak, diru-sarrera arruntak eta kapitalekoak, bai eta biztanleko aurrezki gordina eta funtzionamendu- eta kapital-gastuak.

VI.6 AURREKONTU EGONKORTASUNEN ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNEN HELBURUAK

AEFILOren arabera, Toki Administrazioaren esparruan arau fiskal hauek bete behar dira:

- Aurrekontu-egonkortasuna: finantzatzeko ahalmena izatea, kontabilitate nazionalako terminoetan neurtuta.
- Gastu-araua: gastu konputagarriaren urtetik urterako aldaketak ez du gainditu behar BPGaren epe ertaineko hazkundearen erreferentzia-tasa.
- Zor publikoaren jasagarritasuna: toki-entitate bakoitzaren zor biziak, gure araudiaren arabera, ez du gainditu behar bere diru-sarrera arrunten ehuneko 110.
- Merkataritza-zorraren jasagarritasuna: hornitzaileei ordaintzeko batez besteko epeak ezin du gainditu 30 eguneko epea.

Hori horrela, Departamentuak emandako informazioan ez da Nafarroako "Toki Administrazioa" azpisektorea hertsiki Kontabilitate Nazionalako (SEC-2010) irizpideekin zedarrizten, baizik eta toki-entitateen eta haien erakunde autonomoen multzoari buruzko datuak eskaintzen dira, barne harturik, zor publikoari dagokionez, toki-entitateek partaidetza osoa duten sozietateak ere.

⁹ Udalaren eta haren EEAAen datu bateratuak.

COVID-19aren pandemiak ekarritako krisi sanitario, sozial eta ekonomikoa zela-eta, eta Europako Batzordearen gomendioei jarraituz, 2020ko urrian Diputatuen Kongresuak aparteko larrialdi bat gertatu zela jo zuen, Konstituzioaren 135.4 artikuluan eta AEFILOn ezarritakoarekin bat. Horrenbestez, 2020-2021 aldirako etenda gelditu ziren aurrekontu-egonkortasunaren, zor publikoaren eta gastu-arauaren helburuak, eta etenaldi hori luzatuz joan da denboran zehar, 2022ko eta 2023ko ekitaldietara.

Nolanahi ere, ardura fiskalerako eta zuhurtziarako oharrenak ikusarazten du komeni dela eten-dako arauak aipatzen dituzten aldagaien bilakaerari ere jaramon egitea. Hartara:

a) Aurrekontu egonkortasunaren arauari dagokionez, toki-sektore publikoak 97,72 milioiko finantzaketa-ahalmena du, beheko taulan xehetasunez azaltzen denez:

	(milioiak)			
Finantzaketa-gaitasuna/-beharra	2019	2020	2021	2022
Aurrekontu-saldo ez-finantzarioa	31,16	78,00	24,43	77,36
Doikuntzak:				
Diru-bilketa ez-seguruko diru-sarrerak	-6,23	-11,66	-4,64*	-16,88
Beste administrazio publiko batzuegan-dik jasotako transferentziak	12,85	21,46	20,08	37,24
Finantzaketa-ahalmena	37,78	87,80	39,88	97,72

(*) TADZNek 2023ko azaroan emandako datua, zuzendaritza nagusi horrek 2023ko apirilean finantza-egoerari buruz egindako txostenean jasotakoa zuzentzekoa.

b) Gastu-arauari dagokionez, 2022ko ekitaldirako gastu-araua eten zenez, ez zen epe ertainerako BPGren hazkunderaren erreferentzia-tasarik ezarri ondorio horietarako. Departamentuaren txostenak ez duenez eskatutako informazioa jasotzen, ez du gastu konputagarriaren aldaketa-tasari buruzko daturik.

c) Zor publikoaren jasangarritasunari dagokionez, toki-sektore publikoaren zor bizia 118,56 milioikoa zen 2022ko abenduaren 31n; hau da, diru-sarrera arrunten ehuneko 13.

d) Merkataritza-zorraren jasangarritasun-araua indarrean zegoen 2022an, baina txostenak ez du haren betetzeari buruzko informaziorik ematen. Hiru hilean behin Ogasun Ministerioak gai horretaz argitaratzen duen informazioan azaltzen dira Nafarroako 79tik 91ra bitarte toki-entitateri (hiruhilekoaren arabera) buruzko datuak bakarrik; alegia, soilik Nafarroako toki-entitateen ehuneko 13k igortzen dute informazio hori. Horren arabera, informazioa eman duten toki-entitateak multzoan harturik, batez besteko ordaintze-epea legez ezarritako 30 eguneko gehieneko epea baino laburragoa izan zen, argi eta garbi, urtearen lau hiruhilekoetan; eta, zehazki, laugarren hiruhilekoan 20,22 eguneko izan zen.

VII. KONTRATAZIO ADMINISTRATIBOA

Atal honetan, Kontratazio Publikorako Batzordeak kudeatutako kontratu-erregistroko informazioaren arabera toki-entitateek eta haien menpeko erakundeek 2022. urtean adjudikatu zituzten kontratuak aztertzen dira. Informazio horrek ez ditu barne hartzen munta txikiko kontratuetarako araubide bereziaren bitartez eginiko kontratazioak.

Hurrengo taulan, toki-sektore publikoaren 2022ko kontratazio-jarduera laburbiltzen da, kontratu-kopurua eta haien esleitze-zenbatekoa adierazita.

(milakoak)

	Obrak		Zerbitzuak		Hornidurak		Herri-lanen/zerbitzuen emakida		Guztira	
	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa
Udalak	302	72.239	151	27.188	63	3.535	23	3.627	539	106.589
Kontzejuak	12	1.211	-	-	-	-	-	-	12	1.211
Batasunak	6	522	-	-	-	-	-	-	6	522
Mankomunitateak	5	2.943	17	3.131	13	1.113	-	-	35	7.187
Toki-entitateak, guztira	325	76.915	168	30.319	76	4.648	23	3.627	592	115.508
Erakunde autonomoak	-	-	2	123	1	7	1	1	4	132
Enpresa-entitate publikoak	-	-	1	12	-	-	-	-	1	12
Sozietate publikoak	15	14.533	35	6.251	26	9.051	-	-	76	29.835
Fundazioak	-	-	1	181	-	-	-	-	1	181
Partzuergoak	1	39	3	248	1	26	-	-	5	313
Menpeko erakundeak eta partzuergoak, guztira	16	14.573	42	6.815	28	9.085	1	1	87	30.474
Toki-sektore publikoa, guztira	341	91.487	210	37.134	104	13.733	24	3.628	679	145.982

2022an, toki-entitateek, haien menpeko entitateek eta partzuergoek, guztira, 679 kontratu esleitu zituzten, eta horien esleipenaren guztizko zenbatekoa 145,98 milioikoa izan zen.

Kontratazio-jarduera udaletan eta sozietate publikoetan kontzentratzen da. Udalek kontratuen ehuneko 79 esleitu zituzten; hots, guztizko esleitze-zenbatekoaren ehuneko 73. Entitate horien kontratuetatik, ehuneko 56 obra-kontratuak dira.

Bestalde, sozietate publikoek kontratuen ehuneko 11 esleitu zituzten; horrek egiten du toki-sektore publikoak esleitutako zenbatekoaren ehuneko 20.

Beheko taulan kontratazio-jarduera bildu da, kontratu-kopurua eta esleitze-zenbatekoa adieraziz, kontratu-motaren eta esleipen-prozeduraren arabera.

(milakoak)

Irekia	Proiektuen lehia-keta		Negoziatua		Negoziatua, lizitazio-deialdirik gabekoa		Prozedura erraztua		Murriztua		Prozedurarik gabe ¹⁰		Guztira			
	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa		
Obrak	218	81.992	-	-	1	66	13	1.674	86	6.814	2	269	21	671	341	91.487
Zerbitzuak	160	35.112	2	42	-	-	14	857	34	1.123	-	-	-	-	210	37.134
Hornikuntza	83	12.813	-	-	-	-	6	345	15	575	-	-	-	-	104	13.733
Herri-lanaren emakida	1	2.415	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	1	2.415
Zerbitzu-emakidak	23	1.213	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	-	23	1.213
	485	133.545	2	42	1	66	33	2.876	135	8.512	2	269	21	671	679	145.982

Obrak eta zerbitzu-kontratuak gailentzen dira, zeinek esleitu den guztizko zenbatekoaren ehuneko 63 eta 25 egiten baitute, hurrenez hurren.

Kontratazio-prozeduretatik gehien erabilia irekia da, aplikatua esleituriko kontratuen ehuneko 71n, zeinek guztizko zenbateko esleituaren ehuneko 91 egiten baitute. Ondoren, prozedura sinplifikatua dago, kontratuen ehuneko 20an eta guztizko zenbateko esleituaren ehuneko seian erabilia. Zifra horiek 2021eko eta 2020koen antzekoak dira.

Kontratazioa kontratu gutxi batzuetan kontzentratzen da, taula honetan ikus daitekeen bezala:

(milakoak)

	Obrak		Zerbitzuak		Hornidurak		Herri-lanaren/zerbitzuen emakida		Guztira	
	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa	Kop.	Zenbatekoa
> 600.000 €	25	51.271	5	23.180	5	7.124	2	3.247	37	84.822
> 400.000 € eta <= 600.000 €	11	5.319	3	1.695	1	417	-	-	15	7.432
>150.000 eta <= 400.000 €	70	18.008	23	4.939	11	2.154	-	-	104	25.102
< 150.000 €	235	16.889	179	7.320	87	4.038	22	381	523	28.627
	341	91.487	210	37.134	104	13.733	24	3.628	679	145.982

600.000 eurotik gorako esleipena duten kontratuak 37 dira, eta esleipenen ehuneko 58 dira.

Kontratu-erregistroko informazioaren arabera, esleipenek gora egin dute ehuneko 11 2021eko-ekiko, eta bitarte horretan, zenbateko esleituak ehuneko 19 egin du behera.

¹⁰ Kontratu-erregistroan izen horrekin katalogatuak. Larrialdiko izapidetzea izan duten kontratuei dagozkie.

VIII. KONTU-EMATEA ETA AURREKONTUEN ONESPENA

VIII.1 KONTUAK EMATEKO BETEBEHARRA BETETZEA

Toki Ogasunei buruzko Foru Legeak dioenez, toki-entitateko lehendakariak martxoaren 31 baino lehen onetsi behar du toki-entitatearen eta haren erakunde autonomoen aurrekontuaren likidazioa. Toki-entitatearen kontu orokorrari dagokionez, udaleko osoko bilkurari aurkeztu behar zaio, halako moldez non hurrengo ekitaldiko irailaren 1a baino lehen onetsi ahal izanen baitu. Toki-entitateek bi dokumentu horiek onetsi ondoko 15 eguneko epean igorri behar dizkiote NFKAri.

Beheko taulan xehetasunez azaltzen da, TAKEDTren datuetan oinarri harturik¹¹, 2022ko ekitaldiko kontu orokorrak onetsi eta emateko epeen betetzea:

(Toki-entitateen portzentajea)

Entitate-mota	Epean onetsia		Epean igorria		X+1.12.31ra arte igorria	
	2021	2022	2021	2022	2021	2022
Udalak	67	65	51	56	80	70
Kontzejuak	60	60	39	47	74	61
Mankomunitateak	66	58	45	52	77	61
Batasunak	55	41	45	27	77	68
Guztira	63	61	45	50	76	65

Toki-entitateen ehuneko 61ek epean onetsi zituzten 2022ko beren kontuak, eta ehuneko 50ek legezko gehieneko epearen barruan igorri zizkioten NFKAri.

Txosten honen datara arte, toki-entitateen ehuneko 87k bidali dizkiote NFKAri 2022ko beren kontuak. Portzentaje hori ehuneko 92ra igoko litzateke baldin eta kontu orokorra ez baina aurrekontu-likidazioaren espedientea bai igorri duten erakundeak gehituko bagenitu.

Txosten hau egin den garaian, honako toki-entitate hauek ez diote NFKAri igorri 2021eko eta 2022ko ekitaldietako ez kontu orokorrik ez eta aurrekontuaren likidazioaren espedienterik ere: Kasu bakoitzean, parentesi artean adierazi da aurkeztu duten azken kontu orokorrari edo aurrekontu-likidazioari dagokion ekitaldia.

- Udal batek: Zugarramurdi (2020).

- Guztira 26 kontzejuk: Zizur Txikia (2017), Gazolatz (2016), Larraia (2017), Paternain (2015), Undio (2015) eta Asterain (2020), Zizurren; Larraiotz (2016), Txulapainen; Murugarren (2017), Zuruquain (2019), Allotz (2020), Ibiriku Deierrri (2020), Iruñela (2020) eta Lakar (2020), Deierrin; Galdioi (2019), Larrion (2020), Muneta (2020) eta Zubielki (2020), Allinen; Azantza (2020), Goñin; Argiñano (2020) eta Iturgoien (2017), Gesalatzan; Getze Ibargoiti (2020), Ibargoitin; bai eta Inbuluzketa (2019), Lizarragabengoa (2019), Torres (2020), Gorza (2020) eta Larraintzar (2020).

- Guztira hiru mankomunitatek: Euskara Kudeatzeko Nafarroako Iparraldeko Mankomunitatea (2018), Berragu-Liburutegi Zerbitzuen Mankomunitatea eta Orreaga Kirol Mankomunitatea. Ez da inon agertzen azken bi horiek NFKAri kontu orokorra edo aurrekontu-likidazioaren espedientea inoiz igorri izana.

- Batasunak: Faltzes eta Miranda Arga udalerrien Administrazio Zerbitzuen Batasuna (2019).

Oro har, toki-entitateek beren kontuak onetsi eta NFKAri igortzen dizkiote, baina askotan legezko epeak berandutza nabarmenekin. Horren ondorioz, informazioa ez da bere tenorean iristen eta, beraz, munta galtzen du. Ildo horretan, gaur egun diru-atxikipen bat aplikatzen da, banaketaren aurreko bigarren urteko kontabilitate-informazioa ez igortzeagatikoa¹². Jasota dator FLTA-Pean, eta toki-entitateari TAFEan dagokion kopuruaren ehuneko hamarrekoa da. Dena den, neurri

¹¹ Toki Administrazioako Kontabilitate Espedienteetako Datuen Trukea

¹² Horrenbestez, 2022ko espedienteen atxikipena aplikatzen zaio 2024ko TAFaren banaketari.

hori aplikatzen zaie ez kontu orokorrik ez 2022ko aurrekontuaren likidaziorik aurkezten ez duten toki-entitateei bakarrik.

Honako taula honek erakusten ditu TAFean aplikaturiko atxikipenak:

(milakoak)

Eguna	Entitate-kopurua	Atxikitako zenbatekoa
2024ko 1. ordainketaren atxikipena	133	1.011
2024ko 2. ordainketaren atxikipena	53	89
<i>2022ko espedienteak ez igortzeagatik eginiko 2024ko atxikipena, guztira</i>	<i>186</i>	<i>1.100</i>
Txostena egin den garaian eginkizun egondako atxikipena	51	148

VIII.2. AURREKONTUAREN ONESPENA ETA IGORPENEA

TOFLak xedatzen du ezen udalaren osoko bilkurak aurrekontu orokorraren behin betiko onespena eginen duela hura aplikatu behar den ekitaldiaren aurreko urteko abenduaren 31 baino lehenago, eta NFKAri igorri behar zaiola onespene horren ondorengo 15 egunen barrenean.

Beheko taulan xehetasunez azaltzen da, TAKEDTaren datuetan oinarri harturik, 2022ko ekitaldiko aurrekontuak onesteko eta NFKAri igortzeko epeen xehetasuna.

(Toki-entitateen portzentajea)

Entitate mota	Epean onetsia		Epean igorria		X+1-03-31rako igorria	
	2021	2022	2021	2022	2021	2022
Udalak	34	34	4	4	38	34
Kontzejuak	16	14	2	3	13	14
Mankomunitateak	37	31	2	5	21	32
Batasunak	18	5	0	0	9	36
Guztira	25	23	3	3	23	24

Beren aurrekontua epe barrenean onetsi dutenak toki-entitateen ehuneko 23 bakarrik dira. Gainera, deigarriak dira NFKAri informazioa bidaltzean izandako atzerapenak, zeinak atzerapen askoz handiagoak baitira aurrekontu-likidazioek eta kontu orokorrek pairatzen dituztenak baino.

Dena den, txosten hau egin den garaian, toki-entitateen ehuneko 81ek igorriak zizkieten NFKAri 2022ko aurrekontu-espedienteak.

IX. BARNE-KONTROLA ETA KONTU-HARTZE ORGANOEK JAULKITAKO ERAGOZPEN OHARRAK

IX.1 ESKATUTAKO INFORMAZIOA IGORTZEKO BETEBEHARRA BETETZEA

Atal honetako informazioaren oinarri gisa hartu dira Kontuen Ganbera honek udal, mankomunitate eta batasunetako kontu-hartze organoei 2023ko ekainean bidalitako galdetegiari emandako erantzunetan. Galdetegi horretan informazioa eskatzen zen 2022an eginiko barne-kontrolari buruz. Kontzejuei ez zitzaion bidali formulario hori, ez daukatelako barne-kontrolako eginkizunetan aritzeko gaituta dagoen kontu-hartzaitzako edo idazkaritzako langilerik.

Galdetegia 353 toki-entitateri bidali zitzaion, eta 289 erantzun jaso ziren; halatan, betetze-maila ehuneko 82koa da, aurreko ekitaldikoaren antzekoa. Erantzun ez zuten entitateen artean, biztanleria aldetik Uharteko Udala nabarmentzen da.

IX.2 BARNE-KONTROLA

Arauetan barne-kontrolako hiru modalitate bereizten dira: kontu-hartze funtzioa, finantza-kontrola eta eraginkortasun-kontrola.

Beheko taulan azaltzen dira toki-entitateek kontu-hartze funtzioaren alorrean eginiko kontrolak zer motatakoak diren:

Toki-entitate mota	Toki-entitateenak									
	Erantzunak, guztira		Ordainketa- ren kontu- hartze for- mala		Ordainke- taren kontu-har- tze materi- ala		Inbertsioen egiaztape- nak		Dirulagun- tzen egiaz- tapenak	
	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022
Udalak	240	233	225	210	225	207	206	192	220	211
1.000 biztanle bitarte	165	160	154	142	154	136	148	137	150	145
1.001 biztanletik 5.000 biztanle bitarte	56	54	54	50	56	52	49	45	53	51
5.001 biztanletik 10.000 biztanle bitarte	8	7	7	6	6	7	4	3	8	6
10.001 biztanletik 20.000 biztanle bitarte	8	8	8	8	8	8	4	6	6	7
20.000 biztanle baino gehiago	3	4	2	4	1	4	1	1	3	2
Mankomunitateak eta batasunak	62	56	56	49	58	51	56	50	58	49
Guztira	302	289	281	259	283	258	262	242	278	260
Erantzun guztien gaineko %			93	90	94	89	87	84	92	90

Toki Administrazioari buruzko Foru Legea aldatzeko abenduaren 29ko 22/2020 Foru Legeak toki-entitate guztiengana hedatu zuen Osoko Bilkurak aurretiatzko fiskalizazioaren norainokoa mugatzeko ahalmena, lehendakariak proposatuta eta kontu-hartze organoak aurretiatzko txostena eginda. Horrek kudeaketaren azkartasun handiagoa ahalbidetzen du. Neurri horrek ez ditzan kalteu barne-kontrolak ematen dituen bermeak, kasuko betebeharrak edo gastuak erabat fiskalizatu behar dira ondoren, laginketa- edo auditoretza-tekniken bidez. TAFLen erreforma hori 2021eko ekitaldian sartu zen indarrean. Jasotako informazioaren arabera, osoko billkurak erabaki du araubide hori 12 toki-entitatetan eta Iruñeko Udalean aplikatzea, zeinak jadanik aplikatu egiten baitzuen.

TAFLe araututakoak diren barne-kontrol ekonomiko-finantzarioko beste bi modalitateei dago-kienez, gaiari buruz informatu duten 228 kontu-hartze organoetatik ehuneko 59k eta 44k adierazi dute, hurrenez hurren, finantza-kontrola eta eraginkortasun-kontrola egiten dutela. Legez ezarritakoak diren barne-kontrolako hiru modalitateak baliatzen ez dituzten toki-entitateen artean, duten biztanleriatatik Iruñeko eta Tuterako udalak nabarmentzen dira

Oro har, kontu-hartze funtzioa bete egiten da, eta araudiak eskatutako edukia du. Finantza-kontrolako eta eraginkortasun-kontrolako funtzioak, berriz, gutxiago ezarrita daude. Egoera horren arrazoietakoa bat da Nafarroan funtzio horiek gutxi araututa egotea, gai hori ez baita erregelamenduz garatu, Estatuan gertatuaz bestela, non apirilaren 28ko 424/2017 Errege Dekretua aplikatzen baita, toki-sektore publikoko entitateen barne-kontrolaren araubide juridikoa ezartzen duena.

Igorritako galdetegien ehuneko 57k agerian jartzen dute kontu-hartzaitza organoetan baliabiderik eza dagoela. Zehazki, honako hauek aipatu behar dira:

- Barne-kontrolako zereginetan diharduten langileek berariazko prestakuntzarik ez izatea; batez ere, "idazkari-kontu-hartzaile" diharduenak.
- Kontrol-organok langilerik eta denborarik ez izatea esleituta dituen eginkizun guztiak aurrera eramateko; gainera, eginkizun horiek zenbait toki-entitatetan betetzen ditu.

IX.3 ERAGOZPEN-OHARRAK

Informazioa eskaini duten 289 toki-entitateetatik, eragozpen-oharrak 30 udaletan egin dira. Horrek ehuneko hamar egiten du; hots, aurreko ekitaldiko portzentajearen antzekoa. Kontu-hartzailetzako organoek 188 eragozpen-ohar eman dituzte, 7,15 milioi euroko gastuari eragiten diotenak, taula honetan ikus daitekeenez:

Toki-entitate mota	Entitate kop.		Eragozpen-oharren kop.		Zenbatekoa (euroak)		Zenbatekorik ez	
	2021	2022	2021	2022	2021	2022	2021	2022
0 Udalak	31	28	127	181	2.215.170	6.163.809	23	15
1.000 biztanle bitarte	11	8	22	15	93.434	105.576	0	3
1.001-5.000 biztanle	13	11	56	53	1.134.295	722.113	12	4
5.001-10.000 biztanle	3	3	27	35	296.124	1.072.066	8	4
10.001-20.000 biztanle	3	4	13	23	555.856	1.577.054	0	0
20.000 bizt. baino gehiago	1	2	9	55	135.461	2.687.000	3	4
Mankomunitateak eta batasunak	0	2	0	7	0	983.614	0	0
Guztira	31	30	127	188	2.215.170	7.147.424	23	15

Honako taula hauetan xehakatu dira eragozpen-oharrek ukitutako kudeaketa-arloak eta eragozpen-oharren arrazoiak:

Kudeaketa-arloa	Eragozpen-oharren kop.		Zenbatekoa (euroak)		Zenbatekorik gabe	
	2021	2022	2021	2022	2021	2022
Kontratazioa	86	141	2.159.814	5.532.258	5	6
Langileria	17	12	14.226	57.171	4	5
Dirulaguntzak	10	17	29.610	149.938	3	1
Beste batzuk / Zehaztu gabe	14	18	11.520	1.408.057	11	3
Guztira	127	188	2.215.170	7.147.424	23	15

Arau-haustea/erag. oh. arrazoa	Eragozpen-oharren kop.		Zenbatekoa (euroak)		Zenbatekorik gabe	
	2021	2022	2021	2022	2021	2022
Kreditu nahikorik eza	37	22	142.687	900.653	11	3
Kreditu ezegokia	1	2	47.825	7.087	0	0
Fiskalizaziorik eza	4	5	25.524	130.160	1	0
Egiaztagirietan irregulartasunak egoitea	6	11	29.170	22.390	2	0
Funtsezko betekizun edo izapiderik ez	61	114	1.892.310	4.535.127	3	6
Obra, hornidura, erosketa eta zerbitzuen egiaztapen materiala	-	3	-	3.042	0	0
Ordenamendu juridikoaren aurkako beste ekintza batzuk	18	24	77.653	288.856	6	5
Gastua onesteko eskumenik gabeko organoa	-	7	-	1.260.108	0	1
Guztira	127	188	2.215.170	7.147.424	23	15

Kontratazio publikoaren arloan biltzen dira eragozpen-oharren ehuneko 75 eta ukitutako zenbatekoaren ehuneko 77. Bestalde, eragozpen-oharren arrazoi ohikoenak dira funtsezko betekizunak edo izapideak falta izatea (ehuneko 61) eta ordenamendu juridikoaren kontrako beste egintza batzuk eta aurrekontu-kreditu nahikorik ez egotea (ehuneko 13 eta 12, hurrenez hurren).

Hurrengo taulan, azkenik, ukitutako zenbatekoaren arabera sailkatu ditugu 2022ko eragozpen-oharrak:

(eurotan)

Diru-zenb. tartea	Erag. oh. kopurua	Zenbatetsi den diru kopurua, guztira
1.000 euro bitarte	27	16.600
1.001 - 5.000 euro	23	54.844
5.001-10.000 euro	17	128.112
10.001-20.000 euro	38	570.193
20.000 eurotik gora	68	6.377.675
Zenbatekorik ez da agertzen	15	
Guztira	188	7.147.424

Azkenik azpimarratzen dugu ezen, emandako informazioaren arabera, 16 toki-entitatetan 120 ebazpen onetsi direla kontrol-organoek eginiko eragozpen-oharren kontrakoak direnak.

IX.4 DIRU-SARREREN ARLOKO ANOMALIA NAGUSIAK

Hiru toki-entitatek diru-sarreraren arloko 15 anomaliaren berri eman dute, guztira 348.615 euro ukitzen dituztenak. Zenbateko hori 2021ekoa baino handiagoa da. Ekitaldi horretan zazpi anomaliaren berri eman zen, baina 67.974 euro ukitzen zituzten guztira.

Javier Marticorena Chapa auditorea arduratu da lan honetaz, eta hark proposatuta jaulkitzen da txosten hau, indarreko araudiak ezarritako izapideak bete ondoren.

Iruñean, 2024ko abenduaren 9an

Kontuen Ganberako lehendakaria: Ignacio Cabeza del Salvador

ERANSKINAK

I. ERANSKINA. TOKI-ENTITATEEI APLIKATZEKO ZAIEN ARAUDIA

Txosten honen IV.3 atalean aipatutakoez gain, 2022an honako arau garrantzitsu hauek onetsi dira, Nafarroako toki sektore publikoan aplikatzekoak:

- Diputatuen Kongresuaren Erabakia, 2022ko irailaren 22koa, zeinaren bidez aitortzen baita badela ezohiko larrialdi egoera bat, zeinak justifikatzen baitu arau fiskalen etendura 2023an mantentzea.
- 13/2022 Foru Legea, maiatzaren 12koa, guztira 4.761.112 euroko kreditu berezi bat ematekoa, finantzatze aldera Nafarroako Gobernuko zenbait departamenturen beharrianak eta Ukrainako gerraren ondorio ekonomikoek ukitutako Nafarroako Foru Komunitateko udal eta kontzejuek.
- 19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, zeinaren bidez neurriak hartzen baitira Nafarroako Administrazio Publikoetan egonkortze prozesuak gauzatzeko, Enplegu publikoan behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legearen ondorioz.
- 35/2022 Foru Legea, abenduaren 28koa, 2023rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 36/2022 Foru Legea, abenduaren 28koa, zenbait zerga aldatu eta beste tributu-neurri batzuk hartzeari buruzkoa.
- 98/2022 Foru Dekretua, azaroaren 16koa, udal hirigintza planeamendua prestatzeko laguntzen araubidea ezartzen duena.

2022AN NAFARROAKO TOKI-SEKTORE PUBLIKOAN APLIKATZEKOAK DIREN ARAU NAGUSIAK

a) Toki-administrazio eta -araubidea

- Espainiako Konstituzioa.
- 13/1982 Lege Organikoa, abuztuaren 10ekoa, Nafarroako foru eraentza berrezarri eta hobetzeari buruzkoa.
- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituena.
- 19/2013 Legea, abenduaren 9koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa.
- 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio publikoen administrazio prozedura erkideari buruzkoa.
- 40/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Sektore publikoaren araubide juridikoari buruzkoa.
- 203/2021 Errege Dekretua, martxoaren 30ekoa, Sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko Erregelamendua onesten duena.
- 6/1990 Foru Legea, uztailaren 2koa, Nafarroako Toki Administrazioari buruzkoa.
- 5/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeari eta gobernu onari buruzkoa.
- 7/2018 Foru Legea, maiatzaren 17koa, Nafarroako Foru Komunitateko jardunbide egokien aldeko eta ustelkeriaren kontrako Bulegoa sortzekoa.
- 4/2019 Foru Legea, otsailaren 4koa, Nafarroako Toki Administrazioaren erreformarako.
- 12/2019 Foru Legea, martxoaren 22koa, Nafarroako parte-hartze demokratikoari buruzkoa.
- 17/2019 Foru Legea, apirilaren 4koa, Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunari buruzkoa.

- 31/2022 Foru Legea, azaroaren 28koa, Nafarroan desgaitasuna dutenei arreta emateari eta beren eskubideak bermatzeari buruzkoa.
- 84/2017 Foru Agindua, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioari kontseilariak emana, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duen abenduaren 13ko 18/2016 Foru Legearen 20. artikuluan aurreikusitako klausula soziala aplikatzeko modua arautzen duena.

b) Araubide ekonomikoa, aurrekontukoa eta kontabilitatekoa

- Kontabilitate Publikoko Plan Orokorra, Toki Administrazioari egokitua, Ekonomia eta Ogasun Ministerioaren 1990eko uztailaren 17ko Ministro Aginduaren bidez onartua, irailaren 21eko 272/1998 Foru Dekretuaren bidez onetsitako Kontabilitatearen Instrukzio Orokorren 425. arauan xedatutakoaren arabera aplikatzekoa.
 - 2/1995 Foru Legea, martxoaren 10ekoa, Nafarroako toki-ogasunei buruzkoa.
 - 7/1996 Foru Legea, maiatzaren 28koa, Jarduera ekonomikoen gaineko zergaren tarifak eta jarraibidea onesten dituena.
 - 12/2006 Foru Legea, azaroaren 21ekoa, Nafarroako Lurralde Aberastasunaren Erregistroari eta katastroei buruzkoa.
 - 18/2016 Foru Legea, abenduaren 13koa, 2017-2019 aldirako Toki Inbertsioen Plana arautzen duena. Horren indarraldia gero luzatua izan da, kasuko datara arte.
 - 18/2021 Foru Legea, abenduaren 29koa, 2022rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
 - 270/1998 Foru Dekretua, irailaren 21ekoa, 234/2015 Foru Dekretua, irailaren 23koa, eta 272/1998 eta 273/1998 foru dekretuak, irailaren 21ekoak, aurrekontuari eta gastu publikoari buruzkoa, aurrekontu egiturari buruzkoa, eta Nafarroako Toki Administrazioarentzat Kontabilitate Orokorreko Instrukzio Orokorra eta Kontabilitate Erraztua onestekoak, hurrenez hurren.

c) Aurrekontu-egonkortasuna eta finantza-jasangarritasuna

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-jasangarritasunari buruzkoa.
- 9/2013 Lege Organikoa, abenduaren 20koa, Sektore publikoan merkataritza-zorra kontrolatzeari buruzkoa.
- 6/2015 Lege Organikoa, ekainaren 12koa, honako hauek aldatzekoa: Autonomia-erkidegoak Finantzatzeari buruzko irailaren 22ko 8/1980 Lege Organikoa eta Aurrekontu-egonkortasunari eta Finantza-jasangarritasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoa.
- 3/2004 Legea, abenduaren 29koa, neurriak ezartzen dituena merkataritza-eragiketetako berankortasunaren aurka.
- 25/2013 Legea, abenduaren 27koa, Sektore publikoan faktura elektronikoa bultzatu eta fakturen kontabilitate-erregistroa sortzekoa.
- 27/2013 Legea, abenduaren 27koa, Toki Administrazioaren Arrazionalizazio eta Jasangarritasunerakoa.
- 8/2013 Errege Lege-dekretua, ekainaren 28koa, Administrazio publikoen berankortasunaren aurkako eta finantza-arazoak dituzten toki-erakundeei laguntzeko premiazko neurriei buruzkoa.
- 17/2014 Errege Lege-dekretua, abenduaren 26koa, Autonomia-erkidegoen eta toki-erakundeen finantza-jasangarritasunerako neurriei eta beste neurri ekonomiko batzuei buruzkoa.
- 10/2019 Errege Lege-dekretua, martxoaren 29koa, zeinaren bidez 2019ra luzatzen baita finantzen aldetik jasangarriak diren inbertsioetarako autonomia-erkidegoen eta toki-entitateen superabitaren xedea eta beste neurri batzuk hartzen baitira toki entitateetan gaikuntza nazionala duten langileen eginkizunei dagokienez.

- 11/2020 Errege Lege-dekretua, martxoaren 31koa, COVID-19ari aurre egite aldera arlo sozial eta ekonomikoan premiazko neurri osagarriak hartzen dituena.
- 23/2020 Errege Lege-dekretua, ekainaren 23koa, Ekonomia biziberritze aldera energiaren arloko eta beste arlo batzuetako neurriak hartzen dituena.
- HAP/2105/2012 Agindua, urriaren 1ekoa, Aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-jasangarritasunari buruzko apirilaren 27ko 2/2012 Lege Organikoan aurreikusten diren informazio-emate betebeharrak garatzen dituena.
- 2017ko uztailaren 4ko Ebazpena, Altxorraren eta Finantza Politikaren Idazkaritza Nagusia-rena, zeinaren bidez definitzen baita autonomia-erkidegoen eta toki-entitateen zorpetze-eragiketei eta deribatuei aplikatzekoa zaien zuhurtasun finantzarioaren printzipioa.
- 27/2012 Foru Legea, abenduaren 28koa, zeinaren bidez Nafarroako Foru Komunitatean neurriak hartzen baitira aurrekontu-oreka bermatzeko eta lehiakortasuna sustatzeko.
- 7/2021 Ebazpena, urtarrilaren 28koa, Toki Administrazioaren eta Despopulazioaren zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez onesten baitira Nafarroako toki-entitateek izenpetzen dituzten kreditu-eragiketek bete behar dituzten zuhurtasun finantzarioko baldintzak, bai eta xedetzat aktibo finantzarioak edo haiek emandako abalen edo bestelako berme publikoen ematea daukaten finantza-eragiketak ere.

d) Kontratazio administratiboa

- 6/2006 Foru Legea, ekainaren 9koa, Kontratu publikoei buruzkoa (2/2018 Foru Legeak indarra hartu zuen egunean administrazio-klausula partikularren edo arautze-baldintzen pleguak jadanik onetsita zeuzkaten kontratuetarako).
- 2/2018 Foru Legea, apirilaren 13koa, Kontratu publikoei buruzkoa.

e) Langileak

- 20/2021 Legea, abenduaren 28koa, Enplegu publikoko behin-behinekotasuna murrizteko premiazko neurri buruzkoa.
- 22/2021 Legea, abenduaren 28koa, 2022rako Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzkoa.
- 2/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 23koa, Langileen Estatutuaren Legearen testu bategina onesten duena.
- 4/2015 Errege Lege-dekretua, martxoaren 22koa, Lan arloan enplegurako lanbide heziketa-ren sistema presaz erreformatzekoa.
- 23/2018 Foru Legea, azaroaren 19koa, Nafarroako Polizieiei buruzkoa.
- 251/1993 Legegintzako Foru Dekretua, abuztuaren 30ekoa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko Langileen Estatutuaren testu bategina onesten duena, eta hura garatzeko xedapenak.
- 10/2020 Foru Lege-dekretua, irailaren 16koa, zeinaren bidez neurri batzuk onesten baitira, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde autonomoen zerbitzuko langileen arlokoak.
- 158/1984 Foru Dekretua, uztailaren 4koa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen ordainsariei buruzko behin-behineko Erregelamendua onesten duena.
- 113/1985 Foru Dekretua, ekainaren 5ekoa, Nafarroako administrazio publikoetan sartzeari buruzko erregelamendua onesten duena.
- 215/1985 Foru Dekretua, azaroaren 6koa, Nafarroako Administrazio Publikoetako lanpostuak betetzeko erregelamendua onesten duena.

- 11/2009 Foru Dekretua, otsailaren 9koa, Nafarroako Administrazio Publikoetako funtzionarioen opor, lizentzia eta baimenen erregelamendua onesten duena.

f) Dirulaguntzak

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- 887/2006 Errege Dekretua, uztailaren 21ekoa, Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorren Erregelamendua onesten duena.

g) Hirigintza, ingurumena, energia eta beste arlo batzuk

- 7/2021 Legea, maiatzaren 20koa, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzkoa.
- 7/2003 Foru Legea, otsailaren 14koa, Nafarroako turismoari buruzkoa.
- 8/2005 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, Nafarroako babes zibilari eta larrialdien kudeaketari buruzkoa.
- 13/2017 Foru Legea, azaroaren 16koa, Osasunaren eta Gizarte Zerbitzuen arloetako itun sozialak arautzen dituena.
- 14/2018 Foru Legea, ekainaren 18koa, Hondakinei eta haien Fiskalitateari buruzkoa.
- 17/2020 Foru Legea, abenduaren 16koa, ingurumenean eragina duten jarduerak arautzen dituena.
- 18/2020 Foru Legea, abenduaren 16koa, enpresen sustraitzearen aldeko eta enpresen deslokalizazioaren aurkako neurriei buruzkoa.
- 1/2017 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 26koa, Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko Foru Legearen testu bategina onesten duena.
- 48/2020 Foru Dekretua, uztailaren 15ekoa, zeinaren bidez arautzen baitira oinarritzko gizarte zerbitzuen oinarritzko programak eta finantzaketa-sistema.

h) Europako 'Next generation' funtsak

- 36/2020 Errege Lege-dekretua, abenduaren 30ekoa, premiazko neurriak onesten dituena Administrazio Publikoa modernizatzeko eta Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana exekutatzeko.
- 4/2021 Foru Lege-dekretua, apirilaren 14koa, zeinaren bidez premiazko neurriak onesten baitira, Suspertzerako Europako Bitartekotik heltzen diren Europako funtsen bidez finantzatzen ahal diren jarduketak kudeatzeko eta betetzeko.
- HFP/1030/2021 Agindua, irailaren 29koa, Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Plana kudeatzeko sistema taxutzen duena.
- HFP/1031/2021 Agindua, irailaren 29koa, zeinaren bidez ezartzen baita informazioa emateko zer prozedura eta formatu erabili behar dituzten Estatuko, autonomia-erkidegoetako eta tokiko sektore publikoko erakundeek, segimendua egiteko Suspertze, Eraldatze eta Erresilientzia Planaren mugari eta helburuen betetze-mailaz eta plan horren osagaietako neurrien aurrekontu- eta kontabilitate-exekuzioaz.

h) Toki-entitate bakoitzaren araudi berekia

- Toki-entitateen 2022rako aurrekontuen exekuzio-oinarriak.
- Tasak eta prezio publikoak arautzen dituzten ordenantzak eta akordioak.
- Berariazko hitzarmen kolektiboak.

2. ERANSKINA. NAFARROAKO TOKI SEKTORE PUBLIKOAREN FINANTZA EGOERA 2022AN.

(Oharra: Aipatutako eranskina foru parlamentarien esku dago Agora aplikazioan eta honako web helbidean: <https://camaradecomptos.navarra.es>).

